

Iurretak udal azpiegituren prezioa berdintzea eskatuko dio Durangori

EH Bilduk aurkeztutako mozioa onartu du lurretako udalbatzarrek, aho batez / 11

Durangaldeko 7.000 herritarrek baino gehiagok sinatu dute pentsiodunen Herri Ekinaldi Legegilea / 2-3



Durangon hasi eta Urkiolan amaituko den BIBE Transbizkaia 1.000 zikloturista batuko ditu / 26

Astelehenean 49 urteko langile bat hil zen Atxondon, AHTko lanetan izandako lan istripuan / 06



UDA GEHIGARRIA / 13

IZAROK BEC ERRALDOIAN AGURTUKO DU 'CERODENERO'

'Cerodenero' lanari "ganorazko" amaiera emateko asmoagaz, Izaro Andres mallabitarrak handira jo du; BECen amaituko du azken diskoaren bira, zapatuan / 23



Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Pentsiodunen mugimenduak 7.000 sinadura baino gehiago batu ditu Durangaldeko herrietan, eta, guztira, 145.000 baino gehiago Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Horiek guztiak Eusko Legebiltzarrerara eraman dituzte, gaia eztabaidatu eta pentsioak gutxieneko soldatagaz parekatu daitezen eskatzeko ordezkari politikoei. Pilota, orain, alderdi politikoen teilatuan dago, proposamenaren edukia eztabaidatu baino lehenago gaia Legebiltzarrean eztabaidatu ala ez erabaki behar dute eta; hau da, eskaria tramitatu ala ez. Pentsiodunen mugimenduak aurreratu duenez, "ulertezina" izango litzateke ezezkoa jasotzea, eta "Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan sekula egondako Ekimen Legegilerik handiena" dela nabarmendu dute. ANBOTO Durangaldeko pentsiodunen mugimenduko kideekin batu da Herri Ekinaldi Legegileari buruz gehiago jakiteko: Elorrioko Jesus Aristegi eta Gurutz Sainz de Murietagaz, Iurretako Eguzkiñe Uriondo eta Mariapi Mintegiagaz, eta Durangoko Matias Oregi eta Alberto Gaztelurrutiagaz.

Zer da Herri Ekimen Legegilean jaso duzuen eskari nagusia?

Jesus Aristegi: Azken urteotako pentsioen gorabeherak aztertu, eta liburu ki batean jaso ditugu. Egondako murrizketak aletu ditugu, eta horiek guztiak kontuan hartuta proposamen bat planteatu diogu Legebiltzarrerari. Guk erabilitako irizpidea 2017ko Europako Batzordeko Karta Sozialak markaturikoa da. Horren arabera, herrialde bateko soldata minimoak herrialde horretako soldata gordinen batez bestekoaren % 60 izan behar du, gutxienez, eta pentsiorik txikiak ere kopuru horretara heldu behar dira. Baina errealtatea bestelakoa da, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 100.000 herritar baino gehiagoren pentsioa gutxieneko horren azpitik dago eta.

Matias Oregi: Orain zazpi urte, pentsiodunen mugimendua mar txan ipini genuenean, gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izan zedila eskatzen genuen. Kopuru hark pobreziatik ihes egiteko langa ezartzen zuen, zelanbait. Orain, oster, esku artean dugun egitasmo honetan, ikuspegia beste bat da: pentsio minimoa

"Ez genuke ulertuko gure proposamena ez eztabaidatzea"

DURANGALDEKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUA

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak Herri Ekinaldi Legegilea erregistratu du Legebiltzarrean, pentsioak gutxieneko soldatagaz parekatu daitezela eskatzeko



Jesus Aristegi, Matias Oregi, Eguzkiñe Uriondo, Mariapi Mintegia (behean), Alberto Gaztelurrutia eta Gurutz Sainz de Murieta.

gutxieneko soldataren parekoa izatea eskatzen dugu; hau da, 1.184 eurokoa. Eta zer eskatzen dugu hori horrela izateko? Ba, honako hau: Eusko Jaurlaritzak gutxiengora ailegatzen ez direnen kopuruak osatu ahal izateko tresnak.

"PROPOSAMEN HANDIA DA, PERTSONEI DUINTASUNA EMATEA HELBURU DUENA"

pentsioak osatzea. Izan ere, pentsioen eskuduntza Espainiako gobernuarena den arren, Eusko Jaurlaritzak badiu gutxiengora ailegatzen ez direnen kopuruak osatu ahal izateko tresnak.

Zenbat sinadura batu dituzue Durangaldean?

Alberto Gaztelurrutia: 7.006, guztira. Durangon, Zornotzan, Iurretan, Mañarian, Elorrión, Atxondon, Berrizen, Zaldibarren eta Abadiñon ibili gara sinadurak batzen.

J.A.: Egitasmo arrakastatsua izan da eta bide horretan jarraituko dugu. Hemendik aurrera, herririk herri hasi gura dugu honi buruz informatzen; besteak beste, berbaldiak antolatzen.

"100.000 HERRITARREN PENTISIOA GUTXIENENKOAREN AZPITIK DAGO EAE-N"

Izan ere, ikusten ez den arren, herritar asko dago gutxieneko pentsiorik barik. Eta badaude herritar batzuk arrainik eta okelarik jaten ez dutenak euren pentsioa nahikoa ez delako.

Eguzkiñe Uriondo: Hori bate-tik, eta bestetik, kontuan hartu behar dugu pentsio dezentea jaso arren, bizimodua garestitzen dabilela, eta, horrenbestez, zure diru sarrera murrizt geratu daitekeela gastuei aurre egiteko. Bestalde, alarguntasun pentsioari buruz ere luze eta zabal berba egin daiteke. Momentu honetan, alarguntasun pentsioen kopuruak oinarri erregulatzailearen % 52 edo % 60 izaten dira, kasuaren arabera. Gure borroka ere bada kopuru horiek oinarri erregulatzailearen % 100 izatea. **J.A.:** Lehen, 12 urteko kotizazioa behar zen. Gerora, langa hori 15 urtera igo zuten, eta horrek jende asko bidean geratzea ekarri zuen. Gero, badaude bizitza laboraleko azken urteetan langabezian geratu eta horrek pentsioen kalkuluan igarri dituztenak. Autonomoak daude, alargunak. Oso kasuistika zabala dago pentsiodunen artean; Herri Ekinaldi Legegile honegaz errealtate horiei guztiei erantzun gura diegu.

Zein da aurrerantzean Ekimen Legegileak egingo duen bidea?

M.O.: Giltza EAJk eta PSE-EEk dute esku artean. Demokrazia defendatzen badute, gure egitasmoa tramitera onartzen dutela ikusi beharko genuke. Trami-terako onartzen badute, Eusko Legebiltzarreko ordezkari politiko guztiek eztabaidatuko dute gure proposamena.

J.A.: Gure sinadura kopurua Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan emandako boto kopuruaren % 13 da, gutxi gorabehera. Herriak eskatzen duen zeozker da.

Mariapi Mintegia: Egitasmo handia da. Funtsean, aberastasuna banatzeko eta pobrezia desagerrarazteko proposamena da gurea. Pertsonari duintasuna ematekoa.

Zein da Eusko Legebiltzarreko alderdien posizioa proposamenari begira?

A.G.: Pentsiodunen mugimenduak bilerak hasi zituen Legebiltzarreko alderdi politikoe-kin, urtaril aldean. Printzipio kontuak direla eta, Vox taldeagaz ez gara batu. Albo batera utzi ditugu, baina gainerako guztie-



Pentsiodunen mugimenduak Durangon egindako sinadura bilketa. DURANGALDEKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUA

kin bai, batu gara. Sumar alderdiak baiezkoa eman zigun, Herri Ekinaldia tramitatzearen alde egingo zuela esan zigun, eta proiektuaren edukia bere egiten zuela. EH Bilduk ere gauza bera esan zigun: aldeko botoa emango ziola proposamena tramitatzea-

ri, eta bat zetorrela edukian planteaturikoekin. Alderdi popularrak eskaera tramitatzearen alde egingo zuela aurrerratu zigun, eta edukiari buruz euren ikuspegia plazaratu eta emendakinak aurkeztuko zituztela iragarri ziguten. EAJk gaia aztertu behar

zuela eta sinadura kopurua ikusi behar zuela esan zigun. Ez zuen posizio argirik hartu. Eta PSE-EEK ere, antzera, ez zuen posizio argirik hartu. Horrenbestez, lehen Matiassek eta Jesussek esan duten moduan, ez litza-teke onargarria izango lanketa

hau guzti hau eta sinadura horiek kontuan hartu barik gaia eztabaidatu ere ez egitea. Demokratikoki ulertezina litzateke. Gero, eztabaidarako tramitatuko balitz zer erabaki hartuko luketen? Hori beste kontu bat da.

Alderdi politikoez noiz arte dute erantzun bat emateko epea?

A.G.: Orain, alderdiek denbora bat hartuko dute hau guzti hau lantzeko. Uda dator, oporrak datoz, eta batek daki. Behar bada, irailaren erdialdean landuko dute hau. Luze joko du. Eta, tarte horretan, guk mobilizatzen eta alderdiekin batzen jarraituko dugu. Imanol Pradales lehen-dakariari ere gonbit egin diogu gugaz batzeko.

Aurrerantzean ere bidea egiten jarraituko duzue, beraz.

J.A.: Gatx izango dute eztabaidari ezetz esatea. Hor izango gaituzte gu. Horrez gainera, gutxieneko pentsio horietara ailegatzeko ez direnei, lehen aipatu ditugun 100.000 herritar horiei, ondoan izango gaituztela esan gura diegu. Gugana etortzera gonbidatzen ditugu, plazetara, mobilizazioetara, ber-baldietara, hau guzti hau denon

onurarako da eta.

M.M.: Urte hauetan guztietan geratu barik lan egin dugu. Asko dira sortu, bide bat egin eta bere horretan geratzen diren mugimenduak. Baina gureak tinko eusten dio. Eta uste dut aurrerantzean ere halantxik jarraituko dugula.

A.G.: Bidea hasi genuenetik hainbat lorpen egin dugulakoan nago. Ez goaz atzera, aurrera baino. Gainera, oso garrantzitsua da esku artean dugun honek gutxieneko pentsio guztiei eragiten diela azpimarratzea. Batetik, pertsona batek bizi ahal izateko behar duen gutxieneko diru sarrera bermatzen da proposamenean. Bestetik, honek emakumei ere eragiten die, kotizatu dutenei zein kotizatu ez dutenei. Izan ere, askok ez dute kotizatzeo aukerarik izan, lanik eskasena izan dituztelako edo etxeko lanetan, lan erreproduktiboetan, aritu izan direlako. Honek horri guzti horri ere heltzen dio. Esku artean dugun hau lortzen badugu, zeozer garrantzitsua izango da, inondik ere.



euskal jaiak

DURANGO 2025
EKAINAREN 4TIK 15ERA



Bilbotik Traña-Matienara trenez, euskaraz josteko

Bizkaiko Berbalagunek mintzapraktika saio bitxia antolatu du domekarako; egitasmoko kideak Bilbon batuko dira eta trena hartuko dute Traña-Matienara bidaiatzeko. Bidaian, bagoietan, josteta-lanak eta euskarazko mintzapraktika egingo dituzte

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

09:30ean egin dute hitzordua, Euskotrenek Bizkaiko hiriburu Zazpikaleetan duen geltokian (San Nikolas elizaren ondoan), eta 09:55eko trena hartuko dute, Donostiara doana. Baina helmuga ez da Gipuzkoako hiriburua izango, Abadiñoako Traña-Matienara auzoa baino. Treneko azken bagoian sartuko dira denak, lekua hartuko dute, eta, bidaia hasteagaz batera, jostorrazak, hari-matazak eta kakorrazak atera eta josteari ekingo diote. Euskaraz egingo dute hori guzti hori, bistakoa denez, hizkuntza praktikatzeko jardunaldia izango da eta domekakoa. Izan ere, Bizkaiko hainbat herriarako berbalagun taldeak jostintzaren bueltan antolatutako taldeak dira. Hau da, hainbat dira herrialdeko udalerrietan astero-astero jostintzan eta euskararen trebatzeko hitzordura batzen direnak. Durangaldean ere ugari dira era horretako



Abadiñoako Berbalagun taldeko jostunak. DURANGALDEKO BERBALAGUN

taldeak. Domekakoa, beraz, hitzordu natural-naturala dute. Antolatzaileek azaldu dutenez, Durangaldeko kideez gainera Bilboko, Galdakaoko eta Enkarterrietako kideak ere batu dira bidaiara.

Ane Lusarreta Durangaldeko Berbalagunen koordinatzailea da eta egitasmo berezi horren nondik norakoak kontatu dizkio ANBOTOrri: "Domekako egitasmoak Durangaldeko berbalagunetarikoko batek partekatutako

esperientzia du sorburu. Kideetarikoko batek komentatu zigun, behin, josi bitartean egin zuela Bilbo eta Donostia arteko tren bidaia. Egitasmo hura erdara hutsean egin zuten eta guri ideia polita iruditu zitzaigun antzeko zeozer euskaraz egitea. Bizkaiko gainerako eragileei proposatu nien ideia, eta, azkenean, hori antolatzea erabaki dugu". Ziurrenik, ikusteko modukoak izango dira berbalagunekin batera trenean doazen gainerako bidaiarien harridura aurpegiak. Eta batek daki, akaso bati baino gehiagori sartuko zaio euskaraz egiteko edo josteko grina.

Musika eta mokaduak ere bai

Behin Traña-Matienara auzora ailegatuta (10:41ean), berbalagunak Traña plazara joango dira. "Jostintza-txokoak antolatutako ditugu han. Batzuek ehoziri edo bolilloak egingo dituzte, eta ikasten hasiberriak direnek patroiak egiten ikasiko dute. Era berean, kakorraz taldekoak ere egongo dira, eta baita arropa birziklatuagaz jantzi berriak sortzen dituztenak ere", azaldu du Lusarretak. Behin josteta-lanak amaituta, jaia egiteko tarte hartuko dute. 13:00 aldera, zuzeneko musika saioaz gozatu ahal izango dute, Baske Street Boys taldeko kideen emanaldi akustikoa lagun. 14:00etan mokadutxoak izango dute: pintxoak eta zukuak, besteak beste.

Musika-karrozak arautzeko bidea hasi dute Durangon

A.B. DURANGO

Durangoko Udalak jaietako karrozaren kopurua eta musikaren bolumena arautu gura ditu, eta, horretarako, herriararen iritzia jasotzeki ekin dio. Udal ordezkariak jakinarazi dutenez, "jai dibertigarriak, seguruak eta errespetuzkoak bermatu" gura dituzte, sanfaustoetan "giro orekatua" eta "atsegina" egon dadin. Asier Perugorria zinegotziak adierazi duenez, funtsezkoa da karrozek Durangoko sormena eta aniztasuna islatzea, baina baita sanfaustoez gozaten duten guztientzat giro segurua eta atsegina bermatzea ere. Udalak inkestan parte hartzera deitu ditu talde, elkarte eta herriararak.

Ticket Bai sisteman trebatzeko saioak merkatarientzat

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak eta Dendak Baik prestakuntza programa bat ipini dute martxan udalerriko merkatariari Ticket Bai sisteman aholkularitzan laguntzeko. Saio horietan arreta pertsonalizatua eskainiko diote establezimendu bakoitzari. Inskripzioak www.iggrupo.com/contacto helbidean egin daitezke.

Urmugak uztailaren erdialdean bisitatuko du Durangaldea

Et Incarnatus orkestrak kontzertua emango du Angurretan hainbat abeslarigaz, uztailaren 16an

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Urmuga, Euskal Herriko mendi, ibar eta herriak musikaz betetzen dituen egitasmoa, bueltan da. Aurtengo edizioa uztailaren 11tik 31ra egingo da, Euskal Herriko mendebaldetik hasi eta ekialderengoz ertzeraino. Ohikoa den moduan, mendi zeharkaldiko ibiltariak eta musika ekitaldiek Kantauriko eta Mediterraneoko uren banalerroa izango dute ardatz. Bidean, uztailaren erdialdean, Durangaldea bisitatuko dute. Mendi martxa uztailaren 15ean ailegatuko da hona,



Kontzertu bat Angurretan. MAÑARIKO UDALA

Maume aldetik Garaira eginda. Handik, mendizaleek Gerediagan behera egingo dute eta Durangora ailegatuko dira azkenik. Biharamunean, uztailaren 16an, Urkiolan gora igo, Besaidara heldu eta Debagoienara pasatuko dira. Mendi zeharkaldi osoa edo zati bat egin gura dutenek zabal-zabalik dute horretarako aukera. Antolatzaileek honako informazio kanal hauek ipini dituzte hartu-emanetarako: info@urmuga.eus helbidea eta 696 146 752 telefonoa.

Bestalde, Et Incarnatus orkestrako kideek kontzertua emango dute Mañariko Angurretako harrobian. Uztailaren 16an izango da. Orkestragaz batera, bertan izango dira Pirata, Hatxe, Leturia eta Irati Arcelus, Eñaut Elorrieta eta Xak taldea.



HERRIAREN ESKUBIDEA

Memoria-harriak eskari

Herriaren Eskubideak *Stapelsteine* edo galtzada-harriak ipintzeko eskatu dio Durangoko Udalari, "frankismoaren eta nazismoaren biktimen omenez". Horretarako, nazien kontzentrazio-esparruetako biktima durangar baten kasua aipatu dute, Lorenzo Gaztelumendi Bilbaorena. Gaztelumendi Hanburgoko Neuengamme kontzentrazio-esparruko biktima izan zen.

"Herri bat garela adieraziko dugu Bilbon"

NEREA IRIARTE OKIÑENA DURANGOKO GURE ESKU

Datorren zapatuan, ekainak 7, Gure Esku dinamika Bilboko kaleak hartzera deitu du Euskal Herriaren nazio aitortza eta haren erabakitze eskubidea aldarrikatzeko

Ekaitz Herrera DURANGO

Nerea Iriarte Okiñena Durangoko Gure Esku dinamika partaidea da. Garrantzitsutzat jo du datorren zapatuko hitzordua, eta herritarrek Bilbora joatera deitu ditu. Goiz zein arratsalde, Euskal Herriaren nazio-tasunaren aldeko ekitaldi eta animazio ugari egongo da Bizkaiko hiriburuan. Manifestazio nazionala 17:30ean irtengo da, Casillatik.

Zein izango da ekainaren 7ko mobilizazioaren helburu nagusia?

Mobilizazioaren goiburuak dioten bezala, *Herri libre bat. Euskal Herriak erabaki*, hemen herri bat dagoela adieraziko dugu, nazio bat garela eta aitortza hori me-rezi dugula. Kultura bat, hizkuntza bat, kirol eta ikur batzuk partekatzen ditugu, eta horiek ukatu egiten dizkigute hainbate-tan. Epaitegi-tako euskararen kontrako oldarraldia hor dago, adibidez. Era berean, kirolean ere zailtasunak ditugu nazio gisa agertzeko. Hori guztia erakustea da helburua, nazioa garela aldarrikatzea eta aitortzea.

Burujabetzan salto bat emateko sa-soia dela esan du Gure Eskuk. Zein da salto horren norabidea?

Burujabetza gehiago lortzea, hain zuzen ere. Argi dago Euskal Herria osatzen duten hiru eremu



Nerea Iriarte.

administratiboetan burujabetza gehiago lortzeko prozesuak abian direla. Adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko alderdi nagusiak aspaldidanik dabilta hizketan, estatus berri bat lortu nahian. Iparraldean ere, estatus berri bat lortzeko mugimendu handia dago Euskal Hirigune Elkargoaren inguruan, eta Nafarroako autogobernuan ere aurrerapenak egiten dabilta. Horrek erakusten du salto bat emateko momentua dela. Eta zein izango den jauzi horren tamaina? Herritarren esku dago hori. Horretarako da, hain

zuzen ere, ekainaren 7ko deialdia. Eztabaida hori dagoen bitartean, herritarrok prozesu horren gainean gaudela erakutsi behar dugu, kalean.

Aldarrikapenez gainera, Bilbora doanak animazioak eta egun osoko egitaraua ere topatuko ditu.

Gure Eskuk hainbat ekitaldi antolatu du, 10:30etik iluntzera arte. Hortik aurrerakoak bakoitzaren parrandarako gogoaren arabera-koak izango dira (barrez). Ipuin kontalariak, bertsolariak, dantzak, musika, txarangak kaleetan, beste herrialdeetako kultur adierazpenak, Castellarsak... Adin tarte guztiei begirako ekitaldiak egongo dira Zazpikaleetan zehar. Dena dela, hitzordu nagusia 17:30etan izango da. Ordu horretan irtengo da manifestazioa, Casillatik.

Zer esango zenieke irakurleei?

Garrantzitsua da burujabetza prozesuaren eta nazio bat garela erakusteko aldarrien atzean herritarrek gaudela erakustea. Izan ere, honako hau ez da politikarien kontua bakarrik. Politika gauza baliotsuegia da politikarien esku soilik uzteko. Herritarren eskubideak jokoan daudenean, herritarrok parte hartu behar dugu, ahotsa eta erabakimena izan behar ditugu. Uste dut horiek nahikoa arrazoi direla ekainaren 7an Bilbora joateko.



Brusko langileak enpresako atarian batzen ibili dira asteen. BRUSSEKO LANGILEAK

Bruss lantegiko beharginek lanuzteak iragarri dituzte

"Hitzarmen duin bat" gura dute, azkena 2023an "agortu" zelako. LABek, ELAk eta CCOOk egin dituzte deialdiak

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Bruss enpresako langileek mobilizazio-sorta bat hasiko dute "hitzarmen duin bat lortzeko asmoz". Asteon elkarretaratzeak egin dituzte enpresako atarian, eta ekainaren 2tik 6ra eta 9tik 13ra ordubeteko lanuzteak egingo dituzte. Hortik aurrera, "akordiorik egon ezean", greba mugagabea hasiko dutela iragarri dute. LAB, ELA eta CCOO sindikatuek diotenez, 2023ko abenduaren 31n hasi zen "lan gatazka", itunaren indarraldia "agortu" zenean. Orduetik honako negoziazioek ez dute

fruiturik eman, langile batzordearen berbetan enpresa ez dagoelako "langileentzat eskubide eta akordio duinak lortzeko" prest. Hiru sindikatuen esanetan, "tentsioak nabarmen egin zuen gora" maiatzaren 8an, "lan gorabeheren ondorioz bajaran egon eta bere lanpostura berriro bueltatu zen langile baten kaleratzea" tarteko. Gainera, enpresak "lan kategoria berri bat" sortu duela kritikatu dute, "soldata eskala bikoitza" ezartzen duena. Era berean, Somos sindikatua ere seinatu dute, "enpresagaz sekretupean" batzea egotzita.

Udalak 620.000 euro lotu ditu Tabirako igerilekuen lanetarako

Durangoko Udalak 2,8 milioi euroko kreditu aldaketa onartu du; 1,2 milioi euro Bide Berdea amaitzeko dira

A.B. DURANGO

Durangoko Udalak ia 2.820.000 euroko kreditu aldaketa onartu du azken udalbatzarrean. Trenbide zaharra Bide Berde bihurtzeko azken obrei aurre egiteko izango da diru kopururik handiena; 1,2 milioi euro, hain zuzen ere. Horrez gainera, Tabirako igerilekuen lanekin hasteko dirua lotu dute. Batetik, Tabira kirol-gunea eraitsiko dute (300.000 euro) eta, bestetik, Tabirabiden dagoen transformazio elektriko-zentroa lekuz aldatuko dute (320.000 euro). Bi horiek dira

zenbatekorik handienak, kaleak asfaltatzeko (400.000 euro) lotu den diru kopuruagaz batera.

Beste hainbat proiektugaz aurrera egiteko ere bideratuko da dirua aurrekontura. Besteak beste, San Faustoko Kapitanena baserria eraberritzeko proiektua idatzeko eta zuzendaritza fakultatiborako (100.000 euro) eta Durangaldeko Mankomunitateari egindako ekarpenetarako (232.322 euro) lotu da kreditua. Kultur inbertsioei aurre egiteko eta udal taldearen errefortzura-ko ere gorde dute dirua.

Oizera, burujabetzari deiadar egitera

Domeka honetan, ekainak 1, Bizkaiko deiadar mendietara igotzera deitu du Gure Eskuk: Gorbeira, Ganekogortara, Kolitzara, Oizera eta Matxitxakoko gudako oroigarria. Azken horren lekuan Sollube mendiak egon behar luke, baina tontor horretarako bidea obretan dagoenez, Nestor Basterretxearen eskulturaren bueltan batuko dira. 12:00etan

ekitaldi politikoak egingo dituzte aipaturiko puntu eta tontor guztietan, eta adarra joko dute aldi berean, ekainaren 7an Bilbora joatera deitzeko. Durangaldeko herritarrei dagokienez, Oizera igotzera deitu du Gure Eskuk. Ibiltarientzako hitzordua honako hau da: 10:00etan irtengo dira, Undakortatik (Garai). Oizeko tontorreraino elkarregaz igoko dira, oinez.

Era berean, urteetako ohiturari eutsita, Bizkaiko Batzar Nagusiek ere domekan deiadar mendietara igotzera deitu dute. Kasu horretan ere, Durangaldeko ibiltariak Oizera igotzeko aukera izango dute, Durangoko Alpino mendi taldeko kideekin batera. Hitzordua Garaiko plazan egin dute, 09:00etan. Handik irtengo dira Oizera, oinez. 12:00etan adarra joko dute tontorrean, batzar nagusietara deitzeko.

Lan heriotza salatu dute Atxondon

Astelehenean langile bat hil zen Atxondoko AHTko obretan. Herri mugimenduak deituta, atzo elkarretaratzea egin zuten heriotza salatzeke. Udalak erakunde adierazpena adostu du, senideei elkartasuna adierazi eta gertaturikoa ikertzea eskatzeko

Joseba Derteano ATXONDO

Astelehenean 49 urteko behargin bat hil zen Atxondon, AHTko obretan. LAB sindikatuak informatu zuenez, "pieza bat erori eta zauri larriak" eragin zizkion langileari, eta "odolustuta" hil zen. Halaber, behargina Conprovincial enpresa azpikontratatuarentzat lanean zebilela jakinarazi zuen. Urtea hasi zenetik, 23 behargin hil dira lan istripuan, sindikatuaren esanetan.

Atxondoko ezbeharraren harira, herri eragileek atzo arratsaldean elkarretaratzea deitu zuten lan istripua salatzeke. "Politikari eta eraikuntza enpresek diru publikoagaz etekinak ateratzen dituzten bitartean, langileok hiltzeko arriskuan bizi gara egunero", salatu zuten sareetan zabalduko mezuan.

Adierazpen instituzionala

Atxondoko Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, bere aldetik,



Hildako langilea azpikontratutako enpresa baten bitartez zebilen lanean.

bost puntuko adierazpen instituzional bat adostu du. Bertan, "doluminak eta elkartasun osoa" helarazi dizkie hildako langilearen senideei, lankideei eta gertuko lagunei. Horrez gainera, "ezinbestekotzat" jo du lan-arris-

kuen prebentziorako araudia zorrotz betearaztea, udalerrian lanean dabilzan pertsonen "segurtasunaren aldeko bere konpromisoa" berretsi du, eta arduradunei ezbeharra "ikertu eta argitzeko" eskatu die.



Marixurrike Festeko aurreko aldi bateko familia argazkia.

Marixurrike Fest ospatuko dute Atxondon, barikuan eta zapatuan

Gaur Hodei magoa eta afari herrikoia daude, besteak beste. Bihar goitibehera saioa izango da umeentzat

J.D. ATXONDO

Marixurrike aisialdi elkartearen agur festa zena urteroko hitzordu bihurtuta, Marixurrike Festaren hirugarren aldia antolatu dute asteburu honetarako.

Ekimenik gehienak gaur izango dira, eta horixe da aurtengo nobedadeetariko bat. Egun nagusia zapatutik barikura aurreratu dute, barikuetan herrigunean egoten den giroa aprobetxatzeko. Lehenengo, 16:30ean, umeen pilota partiduak eta pilota goxua txapelketakoak ikusteko aukera egongo da Apatako pilotalekuan. Segidan, 18:30ean, Hodei magoak familia

ikuskizuna egingo du eskolako gimnasioan. Handik kalera aterako dute jaia gero; 19:30ean, DJ Tracken musikak lagunduta, kalejiran irtengo dira herriko kaleetan zehar. Amaitzeko, nork bere janaria eramanda, denek elkarrengaz afalduko dute pilotalekuan.

Goitibeherak

Zapaturako ekimen berezi bat antolatu dute umeentzat, Aldatsa elkartearen laguntzagaz: goitibehera jaitziera. 11:30ean izango da, eta pump track gunearen ondoko errepidean presatu dute zirkuitua.

Batzar zabala Atxondon, HAPOari buruzko azalpenak emateko

Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorrari buruzko azalpenak emango ditu ekainaren 3ko batzar zabalean; bilera 18:30ean hasiko da, udalbatzar aretoan

J.D. ATXONDO

Atxondoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO) eguneraketa prozesua aurrera doa apurka, eta azken osoko bilkuran hasierako onarpena eman zioten. Ildo horretatik, udalak batzar zabal batera deitu ditu herritarrak ekainaren 3ko martitzenerako. 18:30ean izango da, udaleko udalbatzar aretoan. Bertan, azalpenak eman eta zalantzak argituko dituzte.



Planari alegazioak aurkezteko epea ekainaren 30era arte dago zabalik.

Izurtzan martxan da Santa Ageda taberna kudeatzeko lehiaketa

Izurtzako jaietako egun garrantzitsu bat Santa Ageda ermitaren inguruan ospatzen dena izaten da. Meza eta dantzarien saioa izaten dira, eta bertaratzen direnek han inguruan bazkaltzeko ohitura izaten dute. Aurten, irailaren 7an izango da jai egun hori, hile horretako lehenengo domekan. Ermitaren inguruan taberna bat ipintzen dute urtero eta udalak lehiaketara ateratzen du tabernaren kudeaketa. Aurtengo lehiaketa martxan da dagoeneko eta proposamenak ekainaren 12ra arte aurkeztu daitezke, udal arduradunek informatu dutenez. Azken urteetan Angelman Sindromea elkarteak kudeatu izan du Santa Agedako taberna.

Mañarian arrantza txapelketa antolatu dute zapaturako

Aurreko urteetan egindako moduan, Mañariko Mugarra ateneo zinegetiko kirol taldeak arrantza txapelketa antolatu du zapatu honetarako. Parte hartzea doakoa dela jakinarazi dute antolatzaileek. Interesdunek honako telefono honetara deitu edo idatzi dezakete izena emateko: 629 414 332. Leku mugatuak daudela argitu dute, eta bazkideek lehenetasuna izango dutela izena ematerako orduan.

Goizean zehar arrantzan ibili eta gero, eguerdian luntx bat egongo da bertaratzen direnentzat, eta ekimeneko parte hartzaileen artean sari batzuk banatuko dituzte, antolatzaileek zehaztu dutenez.

Oraindik ez zara ANBOToko whatsapp taldeko kide?

Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
badituzu batu Anbotoko
whatsapp kanalera



**Eskaneatu
QR kodea**

* Izan zaitez berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak



Goietako sei etxebizitza alokairu sozialerako egokituko dituzte

Lanen kostua 580.000 euro ingurukoa da eta horietatik 351.000 Jaurlaritzak ordainduko ditu; lanek hamar bat hilabete irautea aurreikusten du Elorrioko Udalak

A. M. ELORRIO

Goietako kaleko 38-40 zenbakietako lokalak alokairu sozialerako apartamentu bihurtzeko lanak hasi ditu Elorrioko Udalak. Hain zuzen ere, lokal horien jabetza udalarena da. Etxebizitza bakoitzaren azalera erabilgarria 45etik 56 metro koa drora bitartekoa da, eta guztiek egongela, jangela, sukaldea, bainugela, logela eta esekitokia izango dituzte. Etxebizitzetarako bat mugikortasun urriko pertsonentzat egokitua izango da. Udalaren esanetan, gazteek bizi duten arazoa leuntzeko baliagarria izan daiteke proiektua. "Proiektu honek udal lokalak herritarren eskura ipintzen ditugu, alokairu sozialerako etxebizitzaren parke publikoaren parte izatera pasatuta. Lehenengo neurri zehatza izango da gazteek pairatzen duten etxebizitzaren arazoa



Goietako kalea.

arintzeko; nahiko proiektu apala da, baina etxebizitza soziala sortzeko egiten den ekarpen guztiak dira garrantzitsuak", azaldu du Maria Herro Hirigintza zinegotziak. Obraren kostua 580.499 eurokoa

izango da eta horietariko 351.000 Eusko Jaurlaritzak ordainduko ditu. Lanak datorren urteko martxoan amaiatzea aurreikusten du udalak, eta alokairua Jaurlaritzaren Alokabideren bitartez kudeatuko da.



Dekalogoaren aurkezpena. ZALDIBARKO UDALA

Zaldibarko kirol elkarteetan euskara bultzatzeko gida, kalean

Euskara Zerbitzuak eta herriko kirol elkarteek ondu dute dekalogo. Euskaraldiaren barruan aurkeztu zuten

E.H. ZALDIBAR

Zaldibarko Euskara Zerbitzuak gida bat kaleratu du Zaldueki Kirol Elkartearen hiru taldeak (saskibaloia, pilota, futbola) eta Biak Bat futbol taldeak elkarlanean. Udalerriko kirol elkarteetan euskara bultzatzeko dekalogo bat da, familientzako hainbat praktika on jasotzen duena. Gidan, entrenatzaileari euskaraz egiteko, taldea euskaraz animatzeko eta euskara ulertzen ez dutenek jarraitu ahal izateko irizpideak jaso dituzte, besteak beste. Dekalogoak familia guztientzat zein

udalerriko klub guztientzat dago erabilgarri.

Kirol elkarteetako ordezkariak eta gurasoak hilerik hile ibili dira proiektu linguistikoa garatzen. 2023ko udazkenean hasi ziren berba eta esapideak baten, euskara batzordearen bueltan, Emun aholkularitza enpresaren bitartekotzagaz. Izan guraso, entrenatzaile, begirale, klubeko ordezkari edo kirolari, denak euskarari bultzada emateko ekarpenak egiten hasi ziren. Euskaraldiaren barruan aurkeztu zuten dekalogo, maiatzaren 23an.

Martxan da Larrea auzoko autokarabanentzako gunea

Udalerriko erdialdean hamaika plaza eta oinarritzko zerbitzuak dituela nabarmendu du Zornotzako Udalak



Alicia Hernandez, Ainhoa Salterain eta Anartz Gandiaga udal ordezkariak.

A. M. ZORNOTZA

Oraintsu amaitu dituzte Zornotzako Larrea auzoan egin duten autokarabanentzako aparkalekuko lanak, eta gunea erabilgarri dago jada. Gunea hamaika plaza ditu eta oinarritzko zerbitzuak eskaintzen ditu; adibidez, ur hornidura, ur zikinak husteko sistema, argiztapena eta birziklapenerako edukiontzia. Gunea zurezko hesi batek inguratzen du. "Proiektu honek, bisitarien etorrera errazteaz gainera, gure tokiko ekonomia dinamizatuko du, eta gure natur eta hiri inguruneari balioa ematen lagunduko du", azaldu du Anartz Gandiaga Hirigintza zinegotziak. EAJk eta PSEk duten udal gobernu akordioaren barruan kokatu dute inbertsioa. Zornotzako Udalak 100.000 euroko inbertsioa egin du guztira.

Andikoako San Asentzio jaiak, gaurtik aurrera Berrizen

Besteak beste, kontzertuak, bertsolariak eta herri kirolak egongo dira Berrizko San Asentzio jaietan

A. M. BERRIZ

Berrizko Andikoa auzoa jaietan murgilduko da gaur, 18:00etan; izan ere, orduan jasoko dute Donien Atxa San Asentzioei hasiera emateko. Auzoko dantzariak Dantzari dantza egingo dute gero, eta, iluntzea girotzeko, Belharra taldeak kontzertua emango du santutegian. Zapatuan Juan Karlos Arriaga memorialeko egingo dute, ohiko kronoigoeragaz; auzoko trikitilariak kirol proba girotuko dute, eta Iñaki Etzeazarraga 'Etze' abeslariak esatari lanak egingo ditu. Zapatua bo-

robiltzeko, Iruri Altzerrekak eta Onintza Enbeitak bertsoetan egingo dute, 19:30ean. Domekan, Iremiñeko kideek dantzan egingo dute, eta, ondoren, Karnele Gisasola 'Zelai III.'-ak, Ioritz Gisasola 'Zelai IV.'-ak, Goizeder Abendibarrek, Izei Abendibarrek eta Aritz Abendibarrek herri kirolen erakustaldia egingo dute. Datorren zapatuan amaituko dituzte jaiak, umeentzako oihailerragaz; 20:30ean, auzotarrek elkarregaz afalduko dute, Mirari eta Aintzane trikitilariak lagun izango dituztela.

Durangaldeko berbalagunen

XVI. Kultur Lehiaketa

1. Faisaien Irla:

- a) Munduko kondominio txikiena da
- b) Film baten izena da
- c) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira

2. Ikastolen Elkarteen altzoan

ernaldu zen Xabiroi komiki aldizkariak:

- a) 100 zenbaki eman ditu argitara
- b) 20 urte bete ditu
- c) Argitaratzeari utzi dio "Txillardegi"

3. Hauetako bat ez da euskaraz ekoizitako telesaila:

- a) Amaia Ezpeldoi
- b) Hondar ahoak
- c) Itsaso

4. Lizar Begoñarena da "Mundu zitalaren kontra" eleberria eta

- a) Igartza sariaren bidez idatzi zuen
- b) Bere lehenengo argitalpena da
- c) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira

5. Itxaro Borda idazle lapurtarra

- a) Hazpamen jaiio bazen ere Baionan bizi izan da urte luzez
- b) Lanbidez postaria izan da
- c) Genero ia guztietako lanak idatzi ditu, baina saiakerarik ez

6. Bi talde hauek batera kantu bat kaleratu dute aurtan

- a) Anari eta Belako
- b) Gozzua eta Nekktar
- c) Naxker eta Nize

7. Maiatzean artista honen lana ikusi ahal izan dugu Durangoko Arte eta Historia museon

- a) Nestor Basterretxea
- b) Fernando Beorlegui
- c) Patricia Laiseka

8. Zenbat urte bete ditu aurtan Durangaldeko Berbalagunek?

- a) 20 urte
- b) 18 urte
- c) 25 urte

9. Artista, idazle, ikerlari, programatzaile zein zinegileek sortutako programak biltzen dituen podcasting espazioa da

- a) Irla
- b) Basilika
- c) (*)

10. Zuberotarrez kantatzen dute eta, normalean, reggae erritmoan. Zein talde da?

- a) Xiberoots
- b) Zer agituko
- c) Maule Muffin

11. Musikari hauetako bat ez da bakarlaria

- a) Verde Prato
- b) Xaguxar
- c) Marte Lasarte

12. Miren Amurizaren "Pleibak" nobelak

- a) Durangoko karaoke bateko zerbitzaria du protagonista
- b) III Akademiaren saria irabazi du
- c) Zinemarako adaptazioa izango du 2026an

AMAITU ATSOTITZ HAUEK:

13. Zereko zera


- a) besteen afera
- b) zertan dela zereko zerarekin
- c) beti berbera

14. Aldi luzeak,

- a) guztia ahaztu
- b) atzea labor
- c) urtarorik ez

15. Sasiak entzuna,

- a) bitik bat gezurra
- b) berotzen du garuna
- c) beti arantzaduna



IZEN-ABIZENAK:

HERRIA:

TELEFONOA:

Erantzun zuzenak markatu eta entregatu Durangaldeko edozein euskaltegitan, **ekainaren 20a baino lehen**.



SARIA 6 kultur saski

EUSKARA ZUZARA



EMAN IZENA

**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

EKAINEN ZOKKETAK

*Zozketa hauetan
parte hartzeko eman
izena gure webgunean.



Xiberu tabernan
bi gosari bikoitz.
Zornotza.



Aukan izozkiak.
6 izozki edo etxera
eramateko 1/2
litroko 2 tarrina.
Durango.



**Mendexa
Abentura
Parkerako bost
sarrera bikoitz.**

MAIATZEKO IRABAZLEAK

Aukan:

Inma Castillo Rodriguez

Basa:

Andoni Lupiañez Mintegi

Xiberu:

Ainhoa Uribarri Artebe eta Ander Etxebarria Lejerreta

BBK Karpin:

Araitx Basauri Gandiaga eta Nehia Aia Goikoetxea

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Ezpatadantzari Eguna, zapatuan, Mallabian

Maiatzaren 31n Durangaldeko Ezpatadantzari Eguna ospatuko dute Mallabian. Bertan, eskualdeko 6 herritako 8 dantza taldek eta Durangaldeko txistulariek parte hartuko dute. 17:30ean emango diote hasiera egunari, kalejiragaz; dantza saioa 18:00etan izango da

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Zapatuan, Mallabiko kaleak ezpataz, makilez eta txilinez beteko dira Durangaldeko Ezpatadantzari Egunean. Eskualdeko sei herritatik joandako zortzi dantza taldek parte hartuko dute Gerediaga Elkarteak Mallabiko Udalaren laguntzagaz antolatu duen ekimenean.

17:30ean emango diote hasiera egunari, frontoitik irtengo den kalejiragaz. Ondoren, 18:00etan dantza erakustaldia egingo dute parkean. Eta dantza saioa amaiturikoan, 20:00 aldera, trikipotean arituko dira herriko tabernetatik zehar. Talde hauek parte hartuko dute Mallabiko Ezpatadantzari

Egunean: Berrizko Iremiñek eta San Lorentzok, Durangoko Kriskitinek eta Txoritxu Alaik, Iurre-

tako dantzariak, Mallabiko Gazte Alaik, Otxandioko Urdurik eta Zornotzako Udabarrik.



Iaz Zaldibarren egindako Ezpatadantzari Eguna.

Abadiñon diru laguntza gidabaimena euskaraz ateratzeagaitik

Alderdi guztiek aldeko botoagaz onartu zuten diru laguntza berri hau martitzeneko osoko bilkuran. Euskararen normalizazioan pausoak ematea dute helburu

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Udalak diru laguntza emango die gidabaimena euskaraz ateratzen duten 15etik 25 urtera arteko herritarrei; baldintza guztiak betez gero, gazte ba-

koitzak 200 euroko diru laguntza jasoko du. Ziklomotorreko (AM), motozikletako (A1 eta A2) eta autoko (B) gidabaimena euskaraz ateratzen dutenek jaso ahal izango dute laguntza. Eskera egi-

teko epea oraindino zabaldu barik dagoen arren, urrian zabalduko da eta eskaerok Herritarren Arretako Zentroan egin beharko dira. 2025eko urtarriletik aurrera gidabaimena euskaraz ateratzen dabilten gazte guztiek eskatu ahaliko dute laguntza.

Ekimen honen bitartez, Abadiñoko Udalak euskara normalizatzea lortu gura du, Naiara Bildosola Hezkuntza eta Euskara zinegotziak nabarmendu duenez: "Euskarak eta euskaldunok euskaraz bizitzeko ditugun traba eta jazarpen guztiak kontuan hartuta, pozgarria da udal talde guztion oniritziagaz diru laguntza honen oinarriak onartzea. Zalantzarik barik, aurrerapauso garrantzitsua da Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren ardatz estrategikoan".



Osoko bilkurako argazkia.

Iurretak udal azpiegituren prezioa berdintzea eskatuko dio Durangori

A. IURRETA

Durangon erroldatuta ez dauden erabiltzaileek tarifa handiagoa ordaintzen dute Durangoko kirol eta kultur azpiegitura publikoak erabiltzeagaitik. Horren aurrean, Iurretako Udalak prezioak berdintzea eskatuko dio Durangoko Udalari. Horrela erabaki du udalbatzararak, EH Bilduk aurkeztutako mozioa onartuta. Egoera konpontzeko, bitartekaritza lana egiteko konpromisoa hartu du. Orain arte, sobran ordaindutako dirua berreskuratu dute iurretarren, udalak emandako

diru laguntzaren bitartez. Aurtan, ostera, laguntza hori eten dute, 2023ko Auzitegi Gorenen epai batean oinarrituta. Horrek ardura sortu du herrian, eta sinadura bilketa egin dute. EAJren gobernu taldeak ohar batean arrazoitu duenez, "epaiak dio udal batek ezin duela alde kuantitatiborik ezarri udalaren kirol instalazioak erabiltzeagaitiko tasan, erabiltzaileak udalerrian erroldatuta dauden edo ez kontuan hartuta".

Bai EH Bilduk bai EAJk bat egin dute herritarren kezka. EH Bilduk salatu duenez, Du-



Eguazteneko udalbatzarra.

rangok ez du legea betetzen, eta ez da bidezkoa Durangon erroldatuta ez dauden herritarrek tarifa desberdinak ordaindu behar izatea euren herrian ez dituzten zerbitzu publiko batzuegaitik. "Alderdi zein erakundeoi dagokigu egoera kon-

ponbidera eramatea", gaineratu du koalizio subiranistak ohiko bilkuran.

"Hainbat bider eskatu diogu Durangori epaia betetzea. Iaztik gabilta lanean, eta hala lanean jarraituko dugu", adierazi du Oskar Koka alkateak.

Kantulagun saio berria prestatzen dabilta Garain

E.H. GARAI

Aurreko jardunaldietako giro polita ikusita, Garaiko nagusien elkarte buru-belarri dabil Kantulagun egitasmoaren saio berria prestatzen. Oraindino ez dute hitzordu berrirako data zehatzik ipini, baina ziurtatu dute ekainean zehar egingo dutela. Edozelan ere, data bat ala bestea izan, entseguak egiten dabilta. Hile ba-koitzeko azken egunean batzen dira arratsalde-pasa elkarregaz egiteko, eta topaketa hori aprobetxatzen dute, hain zuzen ere, abestiak entseatzeko. Egitasmoaren lehenengo edizioa apirilean egin zuten, eta maiatzean bigarrena. Aurrekoak legez, ekainekoa ere saio ederra izatea gura dute.

Iurretako EAJk esan du hartutako konpromisoen ia % 60 bete dituela

Gobernu taldeak adierazi du legegintzaldi aginte planean baturiko 60 konpromisoetatik 34 bete dituela



Iurretako gobernu taldea. IURRETAKO UDALA

A.Basauri IURRETA

Legegintzaldia hasi zenetik urte bi bete direnean, Iurretako gobernu taldeak balantzea egin du. Jakinarazi dutenez, aginte planeko 60 konpromisoetatik 34 bete dituzte, ete beste lau mar-txan ipini. Hartutako konpromiso nagusien ia % 60 bete dituztela esan du Oskar Koka alkateak. Nabarmendu dutenez, hainbat proiektu garatu dute "Iurreta eta iurretarren bizi kalitatea hobetzeko", askotariko esparruetan. Horien artean, Akiñenako oinezkoentzako pasabidea, Atxutxietako zubia, Bidebarrietako aparkalekua, eta baserriak zatitu ahal izateko ordenantza aipatu dituzte. Aurtan, udalak Euskara Plana onartu, eta Etxegoren eta ortu ekologikoen aldeko apustua berretsi du, besteak beste.

PI L.T. eta Perlata taldeen kontzertua Mekoletako jaietan

Otxandioko Mekoleta auzoan jai giroan murgilduko dira ekainaren 6an; hilaren 11n San Bernabera igoko dira

A.B. OTXANDIO

Otxandioko Mekoleta auzoan jai giroan sartzeko prest daude. Ekainaren 6tik 11ra bitartean, San Bernabe jaiak ospatuko dituzte bertan, eta Arkotxe elkarteak hainbat ekitaldiz osaturiko egitaraua osatu du.

Txupinazoa jaurti ondoren, Perlata eta P.I.L.T. musika taldeek emango dituzten kontzertuekin hasiko dira jaiak, ekainaren 6an, 21:30ean. Ondoren, Trikitixa Kontrairo taldea ere igoko da ohol-tzara. DJ Tibek borobilduko du musika eskaintza.

Ekainaren 7rako ere ekitaldi sorta antolatu dute. Urduri dantz taldeak saioa egingo du, 17:00etan, eta, jarraian, Potx magoaren txanda izango da. Joselu Anaiak plaza taldeak giro-tuta, 19:00etan erromeria hasiko da. Ekainaren 8rako marianito-edan musikatu prestatu dute, 13:00etan hasita.

Ekainaren 11n San Bernabera igoko dira. Mendi erromeria egongo da, 10:00etan, eta 12:30eko mezaren ondoren luntxa egingo dute. Arratsaldean mus eta briska txapelketak egongo dira, 17:00etan.

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

BULEGORAKO ZIGILUAK FOTOLITOAK

Elkaskin

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Zamakonari omenaldi beroa

Miren Zamakona Kriskitin dantza taldean dabil, bere sorreratik. Dantzarako grina barruan darma eta horren erakusle dira astelehenetan eta eguaztenetan ematen dituen eskolak. Izan ere, Kriskitineko helduen hiru taldeen irakaslea da. Asteleheneko dantza eskolaren ondoren, ikasleek omenaldia egin zioten, xumea bezain hunkigarria.



DURANGALDEA ASTEON

Gaztetxo Irakurzaleen I. Topaketa domekan

DURANGALDEA Domekarako, ekainak 1, Gaztetxo Irakurzaleen I. Topaketa antolatu dute Zarautzen. Hegoakek antolatu du eta Euskal Herrian lehenengoz egingo da horrelako ekimen bat. Topaketa 10:30ean hasiko da eta 17:00ak arte iraungo du. Bertan, Amaia Egidazu eta Peru Magdalena durangarrek parte hartuko dute, besteak beste.

Osakidetzaren proiektua, bertan behera

IURRETA Jaurilaritzak bertan behera utzi du Iurretan eraiki behar zuten Osakidetzaren plataforma logistikoa. Gotzone Sagardui Osasun sailburu ohiak sustatutako proiektuaren arabera, ETBko egoitza izan zen eraikinean egin behar zuten Osakidetzaren plataforma logistiko berria, eta 30 milioi euroko inbertsioa zegoen aurreikusita. Alberto Martinez Osasun sailburuak iragarri du Eusko Jaurilaritzak behin betiko geldituko duela Osakidetzaren "plataforma logistiko korporatiboaren proiektua".

Nekazaritza eta artisautza azoka Mallabian

MALLABIA Ekainaren 1ean, domeka, nekazaritza eta artisautza azoka egingo dute Mallabian. Kultur Hamabostaldiaren barruan, frontoian egingo duten feria 10:00etan hasiko da. Ondoren, 13:00etan, Gazte Alai dantza taldearen emanaldia egongo da.



Maria Moliner Saria Bizenta Mogel Bibliotekarentzat

DURANGO Irakurzaletasuna bultzatzeko egindako lanagaitik saritu dute Durangoko liburutegia. Martitzenean jaso zuten aitortza, Zaragozako Paniza herrian, Espainiako Kultura eta Kirol ministerioko Liburuaren, Komikiaren eta Irakurketaren zuzendaritza nagusiaren partetik. Durangoko Udalaren berbetan, aitortza horrek liburutegiak "kultura berrikuntzagaz, ezagutza eskuratzeagaz eta euskararen sustapenagaz" duen konpromisoa adierazten du.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - Iurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



POLITIKAN
PAULE SANCHEZ
EAJ-PNV

Elkar mugituz egingo dugu. Aurrera batera!

Hamaika egun eman ditugu Euskaraldiaren edizio berrian zeharo murgilduta. Helburua argia izan da: euskararen erabilera sustatzea. Ikurra den txapa herriar askoren paparrean jantzi-ta egon da; Batzuk Ahobizi, beste batzuk Belarriprest; entitate askok ere izena eman dute, eta denek, arigune iraunkorrak mantendu edo berriak sortu nahian, elkarlanean ibili dira, gara. Arnasgune gehiago sortzea zen xedea, euskaraz aritzeak eragin ditzakeen lotsak gainditzea, hizkuntza-ohituretan eragitea eta urteetan sortutako inertziak haustea; azken finean, erabilera areagotzea. Izan dira, eta ez gutxi, batzordeetan antolatuta, ekimenean hartutako konpromisoak eusten laguntzen aritu diren boluntario norbana-ko zein elkarte. Zalantzarik gabe, xaxatzaille bikainak denak: bejondeiela! Bide horretan, udale-rik beste urrats bat eman nahi dugu. 2017an egin zen azken hizkuntza-neurketa Durangon, eta iaz 2025-2028 aldirako onar-tutako AROA Planaren baitan, euskara jakintza eta erabilera mailaren egoera eguneratua izateko, beste neurketa bat egingo dugu. Jakin baitakigu neurtzen ez dena ezin dela hobetu.

Bakoitzak ekarpen txikia eginez aldaketa handiak lor ditzakegula sinisten dugunok asko gara. Beraz, zailtasunak zailtasun, itxaropena galdu gabe, leloak esaten duen moduan, Elkar mugituz egingo dugu. Aurrera batera!

> anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta, Miren Abasolo Txabarri eta Xabier Lazkano Baseta.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.





foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Ondo maite zaituenak

**GERTU
NAHI ZAITU**



Eta hemengo **produktuetan aurreztea** nahi du



EROSKI

zurekin

"Udalekuak esperientzia berriak eta euskaraz bizitzeko lekua dira"

AINHOA ZUBIZARRETA ZURITURIZA BERBAROKO UDALEKUETAKO KOORDINATZAILEA Ainhoa Zubizarretaren ustez, Barbaroren udalekuak aukera bikaina dira esperientzia berriak bizi eta lagun berriak egiteko. Euskaraz jarduteko aukera ere izaten da

Aritz Maldonado DURANGO

Ainhoa Zubizarretak bost urte daramatza Berbarok antolatzen dituen Ibiltari Handiko koordinatzaile lanetan. "Ikusten ez den lan zati handi bat dagoela ikusi dut urteotan. Gazte, begirale eta koordinatzaile legez asko ikasi dut, eta asko disfrutatu ere bai", azaldu du Zubizarretak.

Zelan doaz udalekuetako prestaketa lanak?

Apiril amaieran osatu genuen taldea eta orduan egin genituen lehenengo bilerak. Hor hasi ginen elkar ezagutzen, programaziora-

ko ideiak biltzen, ekintzak diseinatzeko eta lo lekuak finkatzeko, besteak beste. Ibilbidea osatzen duten etapetako egunak ere zehaztuta ditugu, aurretik egiten baititugu, udalekuetarako ibilbideak aurretiaz ezagutzeko. Orain talde txikitan banatu gara, ardurak banatu eta egun bakoitzerako egitarauak prestatzeko. Sukaldariak menuak aukeratzeko dabilta. Bestalde, Berbaroko begiraleok formakuntza jasotzen ere bagabiltza. Guk geuk proposatzen ditugu formakuntza saioak; aurten, adibidez, lehen sorospen eta emo-

zioen kudeaketa formakuntzak jasotzen ari gara.

Aurreko prestaketa lana ala udalekuetako egunetako lana, zein da gogorragoa?

Udalekuetara dena ondo prestatuta eta lotuta eramatea, gero bertan ahalik eta lasaien egon ahal izateko. Garrantzitsua da aurretik dena ondo lotuta eramatea. Etapak, programazioa, gazteen alergiak eta bestelakoak... Askok dira kontuan hartu beharrekoak, eta horiek lotuta eramateak asko errazten du gero lana. Gero, lan karga urtearen arabera ere



Ainhoa Zubizarreta Zurituriza.





izaten da. Orain arteko batzuk oso udaleku lasaiak izan dira, eta beste batzuetan ezusteko mordoak izan dugu; inoiz ospitalera ere egin dugu bidaiaren bat edo beste. Lan gehiago edo gutxiago izan, aurreko prestaketak garrantzi handia duela iruditzen zait, eta hasierako lanordu dezente horiek ondo eskertzen dira udalekuetako egunak lasaiago igarotzeko. Horrek asko errazten du dena martxan gaudenean, bai begiraleen aldetik bestelako dinamikak egin ahal izateko, eta baita gazteen aldetik ere, eurek proposamenak egin ahal izateko.

Zenbat jende dago Ibiltari Handiko lantaldean, adibidez?

Ibiltari Handiaren kasuan, ni koordinatzailea naiz, eta bulegoan logistikaz arduratzen den Berbaroko langile batek koordinatzen naiz. Gutaz gainera, bost begirale eta praktikak egiten dabilzan hiru ditugu aurten. Sukaldari bi ere etorriko dira, eta, printzipioz, 60 gaztek parte hartuko dute udalekuetan.

Zeintzuk izaten dira gazteei gehien gustatzen zaizkien ekintzak?

Nire esperientziagaitik esan dezaket herri txikiagoetan beste

gozotasun batek hartzen gaituztela, eta gazteen aldetik ere erraztasun gehiago izaten dutela bertakoekin harremandu eta herriaz gozatzeko. Adibidez, urtero egiten dugun ekintzatariko bat Superbibentzia Eguna da; gazteek herriagaz eta herri-tarrekin duten hartu-emanak sustatzea da honen helburua, eta, beraz, gazteak dendarik dena eta etxerik etxe joan behar izaten dira proba azaltzen. Janari edo produkturen baten trukean, zereginen bat eskaintzen diete herritarrei. Ekintza bereziak ere egiten ditugu: abentura parkeak, paintballa, kayaka... Aurten ez dugu hondartzarik zapalduko, eta, beraz, igerileku egunak ere eskertuko ditugu, lasai egoteko.

Zuk zer gogoratzen duzu udalekuetatik?

Uda heltzeko gogoz egoten ginen. Udalekuetako asteak udako onenarikoak ziren. Ikasturtearen ondoren, deskonektatzeko balio zuten, eta herri eta jende mordoak ezagutu nuen oroitzapena dut. Gaur egun ere herri galdu horietatik pasatu eta ibiltarian egon nintzela akordatzeko naiz, eta horrek badu bere xarma.

Zelan aldatu dira udalekuak urteotan?

Udaleku baten atzean dagoen lan guztia ikusi dut urteotan, gazte-tan joaten nintzenean ikusten ez nuena. Eta orain, koordinatzaile lanetan, begirale lez ikusten ez nituen kontu batzuk ere ikusten ditut. Azken finean, prestaketa lan horrek guztiak lan handia dakar, azaletik ikusten ez dena. Koordinatzaile lanetan, gazte taldeenaz gainera, begiraleen ardura ere hartzen duzu. Hiru ikuspuntuetatik asko ikasi dut, eta gozatu ere asko.

Zer dute Berbaroko udalekuek hainbeste gazte batzeko?

Begirale mordoak dago, denak motibazio edo inizatibaz beterik. Hainbat jarduerak egiten da eta gazte askok lehendik elkar ezagutzen dute, gainera, Durangoko ikastetxeetatik zein beste leku batzuetatik: Bergaratik eta Andoaindik, adibidez. Udalekuek irauten duten egunak deskonektio egunak dira, lagun eta leku berriak ezagutzeko zein esperientzia berriak bizitzeko, baina baita euskaraz bizitzeko ere.

TERRAZEN GIDA



GOXOA

**Trañabarren 9,
MATIENA**
Tel.: 946 05 7262

Zapatu eta domeketan bazkariak
eta afariak enkarguz.
Asteburuetan eta jaiegunetan
errazioak eta ogitartekoak.



LAGUN TOKI

**Zeletabe 13,
ABADIÑO**
Tel.: 604 348 989

Pintxoak egunero. Etorri tortilla
pintxo gozo bat jatera.



HERRIA

**Askatasun etorbidea 28
DURANGO**
Tel.: 946 810 513

Astelehenetik barikura 06:00etatik
aurrera zabalik, zapatuetan
08:00etatik aurrera eta domeketan
08:30etik aurrera. Pintxoak eta
gosariak. Asteburuetan rabak. Giro
polita! Zatoz!



XIBERU

**Zeilia Gallartzagoitia, 9
ZORNOTZA**
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero,
pintxopotea egunero eta afariak
asteburuetan. Giro alaia eta
atsegina. Ongi etorri Xiberura.



GAUARGI

**Dantzari 4 behe,
IURRETA**
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak, bariku
eta zapatu gauetan molleteak.
Domeketan rabak eta askotariko
errazioak.



ZERO

**Andra Mari 6,
DURANGO**
Tel.: 946 812 222

Zatoz eta gozatu kafe ona, gure
askotariko pintxoak, asteburuetako
afariak, gure mojitoak eta gin-tonic
bereziak.

TERRAZEN GIDA




TABERNA ZARRA

Trañabarren etorbidea 1,
Matiena

Tel.: 946 812 012

Zatozte gure terrazara bazkaltzera, afaltzera edo trago bat hartzera! Egunero eguneko menuak eta asteburuetan menu bereziak. Bariku eta zapatu gauez errazioak eta plater konbinatuak. Domeka eta jaiegunetan rabak eta kroketak. Giro aparta!



OLONDO

Olondo, jan eta edan ondo
Abadiño

Tel: 647 303 010

Eguneko menua
Asteburuetako menua
Ogitartekoak
Hanburbesak
Haragia txingarretan
Afariak bariku eta zapatuetan



ERROTA

Intxaurrondo kalea 54,
DURANGO

Tel.: 946 216 021

Taberna zabalik 07:00etatik 23:00etara. Gosariak, pintxoak, entsaladak eta ogitartekoak. Merendolak. Terraza ederra, Tabira auzoaren erdigunean.



HOGAN'S

San Juan 1,
ZORNOTZA

Tel.: 946 734 758

Gosariak, pintxo-potea eguen eta barikuetan. Musika zuzenean. Asteburuetan ogitartekoak, hanburbesak... Zapatu eta domeketan txibierroak eta txopitoak. Zuen zain gaude!



MAÑARIKO TALKA HERRIKOA

Herriko plaza 1,
MAÑARIA

Tel.: 944 35 12 62

Eguneko menua dago astelehenetik barikura. Asteburuan karta eta plater konbinatuak. Animatu eta etorri gurera!



GORA-GORA

Arriluzea 2,
DURANGO

Tel.: 946 216 372

Pizzak, fundidoak eta plater konbinatuak.



AXPE

Ermodo 12
DURANGO
@axpe_durango

Pintxoak eta afariak egunero udan. Animatu eta etorri udako arratsaldeak Axpeko terrazan pasatzera.



SORGIN

Ibaizabal 4C,
DURANGO
Tel.: 678 586 143

- Terraza berria, pintxo berriak,
- txibierroak, janari minak,
- errazioak, musika zuzenean.
- Zatoz eta goza gaitzazu!

TERRAZEN GIDA



OLAJAUREGI

Kurutziaga 52,
DURANGO
Tel.: 946 200 864

Ekainaren 7tik aurrera,
Olajauregiko terraza berria zabalik!
Karta berria!



LEZURI

Fray Juan de Zumarraga 13,
DURANGO
Tel.: 946 810 858

Egunero gosariak, bazkariak eta
afariak ematen ditugu.
Sukaldea egun guztian zehar
zabalik dago.



ARRIPU



Txibitena 9,
DURANGO
Tel.: 602 387 814

18 tortilla desberdin. Terraza
aurrean eta ostean. Bizikleten
aparkalekua.



OREKA

Dantzari 5,
IURRETA
Tel.: 630 149 417

Gosari goxoak. Giro atsegina eta
tratu ezin hobea.



LA BODEGUILLA

Dantzari auzunea 6,
iURRETA
Tel.: 944 66 93 57

Astelehenetik domekara bazkariak,
eta bariku eta zapatuetan afariak.
Martitzenetan itxita



KATAZKA

Alluitz kalea 17, behe 3
DURANGO
Tel.: 688 655 348

Astelehenetik barikura
gosariak 8:30 - 15:00.
Zapato, domeka eta
jaiegunetan 9:00 - 15:00.



JAUREGIBARRIA JATETXEA

Bideaur 4,
ZORNOTZA
Tel.: 946 30 16 32

Ekainaren 26tik irailaren 2ra udako
ordutegia. Eguenetik zapatura
afariak terrazan.



IKUSPEGI

Goiuria auzoa 12,
IURRETA
TEL.: 946 67 41 08

Karta eta errazioak. Lagunekin zein
familiagaz Durangaldeko paisaiatz
gozatzeko aukera paregabea duzue
terrazan. Etorri eta disfrutatu!

TERRAZEN GIDA



IBAI ONDO

Bixente Kapanaga 11,
IURRETA
Tel.: 668 505 682

Astelehenetik barikura
pintxoak.
Asteburu eta jai egunetan
errazioak.



ELORRIOKO BATZOKIA

Urarka 13,
ELORRIO
Tel.: 946 85 56 56

Eguneko menua, plater
konbinatuak eta hanburgesak.



DAYTONA

Bixente Kapanaga, 8
IURRETA
Tel.: 946 20 03 39

Bariku eta zapatuetan afariak.
Domeketan errazioak
Urtegunak ospatzen dira.



ERREKONDO

Andra Mari kalea 1,
MAÑARIA
Tel.: 944 42 01 07
[@errekondo_jatetxea](#)

Eguenetik astelehenera bazkari
eta afariak. Bertako produktuak,
oilasko errea eta gehiago
txingarretan.



IZURTZAKO HERRIKO TABERNA

Eleizalde 20 Behea
IZURTZA
Tel.: 946 80 89 08

Astelehenetik domekara iberiko
errazioak. Asteburuetan iberiko
errazioak eta errazio beroak.



GARAICO HERRIKO TABERNA

San Migel 20,
GARAI
Tel.: 946 81 25 80

Etorri giro atsegin batean
menu gozo bat jatera.



SIMON TABERNA

Askatasun etorbidea 46,
DURANGO
Tel.: 946 81 87 92

Bazkariak zapatu eta domeketan.
Afariak eguenetik domekara.
Umeen urtebetetze jaiak.



ZELAIETAKO JUBILATUAK

Solozabal, 1 behea
ABADIÑO
Tel.: 671 286 104

Bariku eta zapatuetan afariak
Domeketan rabak eta zamburiñak
Astelehenetan itxita.

Maialen Zuazubiskar DURANGO

Herriar askorentzat uda sasoia urtean zehar egin ezin daitezkeen planak egin, lasai egon, eta, batez ere, atsedean hartzeko momentua izaten da. Baina hau ez da denek kasua. Esaterako, udako hileetan musikarien agendak leporaino beterik egoten dira eta, euren instrumentuak hartuta, hara eta hona ibiltzen dira, kontzerturik kontzertu. Ondo bidean, Mikel Nuñez musikari durangarra horrelaxe ibiliko da uda honetan. Gaur egun hiru taldetan dabil (Mississippi Queen & The Wet Dogs taldea, Xahu Quarter eta Irati Bilbao abeslariagaz) eta beste talde batzuetan ere ibiltzen da ordezko legez. Hori guzti hori bere egunerokolanagaz uztartzen du, irakasle lanagaz.

Hiru taldetan musikari legez, eta horrez gainera zure eguneroko lana. Zelan uztartzen duzu dena? Erraza da agendak koadratzea?

Asteazken zehar irakaskuntzan zentratuta egoten naiz eta asteburuetan kontzertuak izaten ditugu; kontzertu guztiak asteburuetan izaten ditugu. Udan, osera, askoz ere malguagoa izaten da kontua. Kontzertuei

"Uda zoramen handiko sasoia izaten da guretzat"

MIKEL NUÑEZ LAUZIRIKA MUSIKARIA

Mikel Nuñez Lauzirika musikari durangarraren uda kontzertuz beterik dator eta ez du geldirik egoteko tarte handirik izango. Gaur egun hiru taldetan jotzen du, Mississippi Queen, Irati Bilbao eta Xahu Quarter taldeetan

dagokienez, hiru taldetan ibilita, lehenengo data lotzen duenagaz joaten naiz, eta behar izaten den ordezkoengana jotzen dugu. Ni ere horrela aritzen naiz beste talde batzuetan, ordezko legez. Alde horretatik, antzera samar gabilta denok.

Aste batzuk baino ez dira falta udan sartzeko. Zelakoa izaten da uda sasoia musikari batentzat?

Nire kasuan, alde batetik, uda garai ona izaten da, kontzerturik gehien orduan izaten dut eta. Baina, bestetik, uda zoramen handiko sasoia izaten da guretzat. Ekainean kontzertu mordoa

"EKAINEAN HAINBAT KONTZERTU DUGU; HIRU HILEAN 20 BAT KONTZERTUTAN JOKO DUT"

"BETI ESAN DUT ZORTE HANDIA DUDALA; DAUKADAN LANA ASKO GUSTATZEN ZAIT"

izaten dugu eta hile horretan irakasleok lan handia dugu, ikasturte amaiera da eta. Sasoi hori zoramen izaten da. Baina kontuan hartuta irakasleon egutegia oso ona izaten dela, eta uztailan eta abuztuan oporrak ditudala, hile bi horietan kontzertuetan zentratzeko aukera ere izaten dut.

Zer aurreikuspen duzu udarako? Beste urte batzuetan uztaila eta abuztua potenteagoak izan direla esango nuke. Baina, hala ere, ekainean hainbat kontzertu dugu, eta hiru hilean 20 bat kontzertu ditudala uste dut. Gainera, kon-

tzertu asko kanpoan dira, eta asko bidaiatzea tokatuko zait. **Asko bidaitu behar duzula diozu. Musikari eta artisten lana sarritan idealizatu egiten dela esan daiteke? Azken batean, zuek denbora mordoa pasatu behar izaten duzue errepidean.**

Ez da horren ideala, baina ezta horren txarra ere. Ni, esaterako, Andaluzian zortzi bat bider egon naiz kontzerturen bat ematen, eta ez dut ezertxo ere ikusi. Gain-gaietik ikusi dut, eta askotan furgonetako leihotik. Asko bidaiatzen dugu, baina, nire kasuan behintzat, ez dut astirik izaten turismoa egin



Arbizu CAMPING

ARBIZUKO EKOKANPINA

www.campingarbizu.com
Tel.: 848 470 922
Jatetxeerako erreserbak: 635 093 140

INGURUAZ GOZATZEKO LEKU ZORAGARRIA - ETXETXO BERRIAK ALOKAIRUAN



zintzilik

Emozio labaranga

Rigging

Sokaskean

Hegan

Arroila

Jausiak

info@zintzilik.eus
Tel.: 652 752 474

www.zintzilik.eus
@zintzilik_emozioen_laborategia



SKATE ESKOLA
Eibar
679 515 592
www.iparsurfskate.com

SURF ESKOLA
Debako hondartza
627 325 135

IPAR
SURF & SKATE ESKOLA

@ipar_surf_skate IPAR surf & skate



HONTZA EXTREM

(HONTZAID ABONIRA JAKDA)

Tel.: 633 468 947 / www.hontzaextrem.com



Mikel Nuñez kontzertu batean.

eta herriak eta hiriak ezagutzeko. Kilometro horiek guztiek asko nekatzen dute.

Kilometroek nekatu egiten dute, baina gustura egiten dituzue?

Taldean giro ona badago, furgonetako orduak oso arin joaten dira.

Eszenatoki txiki zein handietan jotakoa zara. Baita Donostiako Jazzaldia festibaletan ere, adibidez. Zelako esperientzia da halako leku batean jotzea?

Jende mordo batzen duen ekimena da. Musikari legez, eszenatokia igo eta hondartzako pasealekua jendez lepo ikustea itzela da. Baina, egia esan, Donostiakoa "sentsazio apur bat faltsua" ere bada, gero urtean zehar ia ez delako beste ezer egoten. Baina udako festibal hau itzela da.

Jazz musika asko zabaltzen dabil eta festibaletan entzuteaz gainera, herriko jaietako kontzertuetan ere entzuten da. Jaiak genero musikal desberdinetara zabaltzen eta moldatzen dabilatzala esango zenuke?

Baietz esango nuke. Festibal txiki pilo bat egiten hasi dira orain, eta sarritan jaien barruan sartzen dituzte. Esango nuke jaietan ere

hasi direla jende gehiagorengana heltzen eta gustu ezberdineko ekintzak antolatzen; hau da, musika estilo desberdinetako programazio txikiak antolatzen. Ez dakit ezer aldatzen dabilen ala kointzidentzia bat den.

Zer duzu gurago jotzeko, festibal handi bat ala herriko plaza bateko edo taberna zulo bateko kontzertu bat?

Bakoitzak bere xarma du. Festibal handi batean, eszenatoki handi batean, izugarri disfrutatzen dut isats-pianoa jotzen. Soinuaren kalitatea gozamen hutsa da. Baina horrelako lekuetan publikoa ilunetan egoten da eta ez da ezer ikusten. Alde horretatik, hotza ere izan daiteke. Taberna batean, oster, guztiz desberdina izaten da. Egia esan, aspaldi ez dut taberna batean jo, baina oso desberdina da, bai. Nik estilo diferentetan jotzen dut; esaterako, Mississippi Queen rock-soul talde bat da, eta publikoa guztiz desberdina da. Baina alde biek dute xarma. **Urte askoan erromerietan ere ibilitakoa zara. Igartzen duzu horien falta?**

Egia esan, ez (barrez). Orain urte asko ibili nintzen horretan.

Oraintsu ere jo izan dut horrelakoren batean, norbait ordezkatzeko deitu didatelako, udako kontzerturen batean edo. Baina hurrengo egunean damutu egin izan naiz. Oso gogorra da, ordutegi aldetik, batez ere. Ni neu kontzertuak goiz ematera nago ohituta, eta askotan afalordurako erdi libre egoten naiz. Erromerien kasuan ez da horrela. Inoiz 05:00etan ere amaitu izan dut, Nafarroan. Gogorra da gero dena batu eta etxera bueltatzea.

Musikari lanetik bizitzea ez da erraza izango. Gustura zaude orain dituzun proiektuekin?

Beti esaten dut zorte handia dudala, daukadan lana asko gustatzen zaidalako, bai klaseak ematea eta baita kontzertuak ematea ere. Orain, hiru taldetan jotzen dut, eta deitzen didaten besteren batean ere aritzen naiz lantzean behin, baina betiere nik aukeratutakoetan. Gaur egun, neuk aukeratzen dut neure lana. Sasoi batean, hamar bat taldetan ibili nintzen, eta apurka murritzten joan naiz. Gustura nabil horrela, geratu barik, gura dudana egiten.

ALLUITZ MOTOR, S.L.

Alluitz, z/g 48200 DURANGO/Bizkaia

Tel.: 946 202 004

taller.alluitz@vasataldea.eus · www.alluitzmotor.com



Ikasiz Goza Ezazu !

www.aquariumss.com

AQUARIUM

Okm: batzen gaituen distantzia

anboto
kide

BERRIA!

BED'S

- Momentuko deskontuaren gainean %5eko deskontua.

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia
eta psikomotrizitatea

- %15eko deskontua saio solteetan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako bilio duen sarrera konbinatuan ere.

ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan.

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran.

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan.

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
 - %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

LA PERLA

- %15eko deskontua sasolan jartzeko talaso zirkuituan.
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua 20 €-tik gorako erosketetan.

OSASUN ETXEA

- Zatoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline)

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-goizgarrietan izan ezik).

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandiko Urkioil gasolindegietan 3 zentimoko deskontua litroko.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan.
- %10eko deskontua papergintzan.

URTXINTXA JOSTAILU DENDA

- %5eko deskontua erosketen guztietan.
- %10eko deskontua 100 €-tik gorako erosketetan.

ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua.



Atera etekina txartelari!

**Egin zaitez
Anbotokide:
946 816 558**

Deitu eta
eman izena!





Izaro.

""Cerodenero'-k merezi du ganoraz amaitzea"

IZARO MUSIKARIA

MUSIKA Izaro Andres mallabitarrek amaiera berezia eman gura dio 'Cerodenero' diskoaren zikloari; Barakaldoko (Bizkaia) BEC erakustazokan egingo du emanaldia

Aritz Maldonado MALLABIA

Izaro Andres mallabitarrek urteak daramatza inurri lanean, disko-rik disko, birarik bira, bere abestiak geroago eta jende gehiagorengana eramaten. 2022an 5.000 lagunek Anoetako belodromoa bete eta gero, erronka bereziagaz amaitu gura du *Cerodenero* diskoaren bira. Barakaldoko BEC erakustazokan kontzertua eman- go du zapatuan, hilak 31, gonbi- datu bereziekin: besteak beste, Baiucak, Olatz Salvadorrek, Valeria Castrok, Miki Nuñezek

eta Olaia Inziartek parte hartu- ko dute festan. Zapatukoaren ondoren, mallabitarrek lanean jarraitzeko asmoa agertu du, baina fokuetatik kanpora.

Bira amaierara heltzen dabil, eta, zuk esan duzun legez, mendia jais- ten zabilta orain. Gogotsu zaude zikloa amaitzeko?

Egia esanda, bai. Pena handia ematen dit amaitzeak, baina beharrezkoa da eta *Cerodenero*-k merezi du ganoraz amaitzea. Batzuetan, amaitu arte ezin da gertatutakoaren forma osoa iku-

si, eta badut gogoia perspektiba horretatik begiratu ahal izateko urte bi hauei. Gure gorputzek ere eskertuko dute ziklo amaie- ra, deskonprimitzeko.

BECen luxuzko gonbidatuz ingura- tuta egongo zara. Zelako emanaldia izango da?

Oso berezia izango da. *Cerode- nero* bere onenean. Lagun asko oholtzan, koreografia lan ederra eta zorrotza. Niretzat oso hun- kigarria izango da, omenaldi bat *Cerodenero*-ri eta urte bi hauei, agur bat ziklo zoragarri

"BEC-EN JOTZEA APUSTU BAT DA GURETZAT, BAINA HORRELA OSPATU GURA GENUEN"

"EGINEZ IKASTEN DA, EGINEZ EGITEN DA BIDEA, ETA HORRETAN GABILTZA BURU-BELARRI"

honi. Eta harrotasun ospakizun bat nire lantaldeagaz eta ikus- leekin sortu dugun komunitate eder honegaz. Kontzertua bera indartsu dator, zirraragarria izango da, fisikoki exigentea, eta gogotsu nago giharreko minagaz esnatzeko hurrengo egunean.

Zelanbait esateko, BEC eta beste areto handi eta pabilioiak musika- zalez beterik ikustera ohitu gara. Baina zelako lana du atzetik horre- lako ikuskizun bat prestatzeak?

Lan handia, eta, batez ere, ardu- ra handia. Jende askoren lana antolatu behar da, bertigo handia ematen du, gastuak hor daudela- ko, baina sekula ez dakizulako zein sarrera kopuru salduko den. Guretzat behintzat apustu bat da, horrela ospatu gura genuelako, probatu gura genuelako. Lan handia da, baina baliabide alde- tik ate asko zabaltzen dizkizu era berean, benetan buruan zenuen horretara ahalik eta gehien hur- rerratzeko. Oholtza forma kon- kretu bat, iruditeria konkretu bat. Kontzertu hauek konplikatua- ki, bai teknikoki bai artistiko- ki, baina zure oholtzarako izaer- aren beste alderdi bat aktibatzen dute eta niretzat opari bat da nire alderdi ezberdin horiek aktibatu ahal izatea.

2022an 5.000 lagun en aurrean eman zenuen kontzertua, belodromoan. Baliagarria izango zen oraingoa prestatzeko, ezta?

Bai, oso baliagarria. Hura egin genuenez, orain lasaia nago. Ikasten zoaz zuzenean, asmatu ala ez. Ikasketa prozesu interes- garria da, ikusgai dagoena, mo- mentuan hartzen duena forma. Eginez ikasten da, eginez egiten da bidea, eta horretan ari gara buru-belarri, eginaren eginez. **Perspektibagaz begiratu, zelan ikusten duzu *Cerodenero*, eta zein da zure diskografiari egin dion ekarpena?**

Niretzat oso disko garrantzitsua izan da. Auto-justizia disko bat, inflexio puntu bat markatu due- na, sendatu nauena, nire lekuan ipini nauena, oinez irakatsi izan balit legez eta orain bakarrik nabil. Soinu aldetik gauza ezber- din asko gertatu da lan honetan, eta konfirmatu dut ez nabilela genero musikalen atzetik edo pean, abestien bila nabil, eta horixe da nire generoa, kantua. **Eta, atzera begiratu, zelakoa izan da diskoaren eta biraren zikloa?** Zoragarria. Lantalde zoragarri bategaz ametsak betetzen nabil. Ez da arruntena norbere ametsak bete ahal izatea, eta kontziente gara bide hori egiten gabiltzala. Oso zoriontsu izan gara, asko bidaia- tu dugu, nazioarteko bi- ran ibili gara eta oso zortedun sentitzen gara. Zortedun lan egin dezakegulako, gure talen- tua landu dezakegulako, eta musikan zuzenekoak duen ma- gia hori bizi dezakegulako. Osasuntsu gaude, elkarregaz gaude, eta martxan gabiltza. Hau ez da horrela izango beti, hain perfektua, eta, beraz, go- zatzen gabiltza.

Perlak kaleratu duzu oraintsu. Biran inspiratu zara ala arrazoi desber- dinengaitik *Cerodenero* diskoan lekuri ez zuten abestiak dira?

Cerodenero diskoaren mendi jaitsieran idatzi nituen *Perlak* disko-ko abestiak, bira erdia egin eta jada beheranzko bidea har- tzean. Kolpean sartu zitzaidan jendeari kanta idazteko gogoia, eta eurekin abestekoa. Mendian gora joan naizenean, lurrera eta nire oinetara baino ezin nuen begiratu, labanik ez egiteko, heldu behar nuen lekura heltze- ko, eta behin gailurrera ailega- tuta begiak lurretik altza ditza- kezu eta harago ikusi; hor hasi nintzen *perlak* ikusten, eta EP honetan biltzea erabaki nuen, mendiaren parte direlako.

Etenaldi bat iragarri duzu. Ardura- tzen zaitu gero etorri daitekeenak? Bai eta ez, badakidalako etenik barik ez dagoela gerorik. Geroa egotea gura badut, etenaldiak behar ditut tarte bien artean. Kezka sortzen dit, jakina, ea bueltan jendeak besoak zabalik hartuko gaituen berriro, eta gu zelan egongo garen. Baina gel- dialdirik barik ez dago erritmo- rik. Beraz, ez dago beste aukera erre- alik gaur-gaurkoz. Jakina, etenaldia oholtzetan izango da, baina lanaren erritmoak aurre- ra jarraitzen du.

Gomez eta Elorriaga, Gerediagaren lemazain

GEREDIAGA ELKARTEA 22 urtean karguan egon eta gero, Nerea Mujika Ulaziak Gerediaga Elkarteko presidente izateari utzi dio; Gotzon Gomez Barrenetxea izango da presidentea hemendik aurrera, eta Asun Elorriaga Albizu presidenteordea

A. M. ABADIÑO

Hamarkada bi baino gehiagoan Gerediaga Elkarteko presidentea izan eta gero, Nerea Mujikak ez duela karguan jarraituko iragarri du aste honetan. Gotzon Gomezek hartuko du bere tokia, eta Asun Elorriaga izango du alboan, presidenteorde. Hain zuzen ere, Gerediaga Elkartek urteroko Batzar Nagusia egin zuen domekan, maiatzak 25, Gerediaga auzoko foru-zelaian. Bertan, aho batez onartu zuten Zuzendaritza Batzorde berria, eta kargu berriak ere onartu zituzten.

22 urtean presidentea izandako Mujikak "emozionatuta" berba egin zuen joan zen aste-buruko ekitaldian, eta eskertuta doala azpimarratu zuen: "Gerediagan ezagututako ikerlari, historialari eta bidelagunekin ikasteko aukera eta Durangaldearen alde lan egiteko aukera izatearren oso eskertuta nago". Gotzon Gomez duran-



Asun Elorriaga, Nerea Mujika eta Gotzon Gomez.

garra hartu du haren kargua. Gomez 1970ean jaio zen, eta, Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologia ikasi eta gero, 30 urte baino gehiago daramatza euskara eskolak ematen Durangoko Jesuitak ikastetxean. Bestalde, Asun Elorriaga Gerediaga elkarteko idazkaria izan da orain arte, eta orain presiden-

teordea izango da. Elorriaga 1958an jaio zen, Muxikako Maume auzoan.

Mujikagaz batera, Belen Ben-goetxeak ere utzi du Gerediagaren zuzendaritza. Oihana Azkorbebeitia abadiñarra izango da kide berria. Guztira, bederatzi lagunek osatuko dute zuzendaritza.



Zoe Igartiburu.

Zoe Igartiburu elorriarrak Ateneon aurkeztuko du diskoa

MUSIKA Zoe Igartiburuk 'You were there' kaleratu du oraintsu, "maitasunari oda bat, bere zentzu guztietan"

A. M. ELORRIO

Zoe Igartiburu artista elorriarrak *You were there* izenburua ipini dio bere lehenengo lanari. Gitarra eta pianoagaz konposatu dituen hamaika pop kanta batu ditu bertan. "Disko hau esperientzia errealetatik jaio da, nire bizitzan arrastoa utzi duten pertsonekin bizitakoak. Beti hor daudenei eginiko omenaldi bat da, alboan ditudanei eginikoa, nigandik hurbil zein urrun egon", azaldu du Igartiburuk. Pop doinu modernoz jantzirik, ikutu melodikoak eta hausnartzera gonbidatzen duten atmosferak batzen ditu diskoak. "*You were*

there lanak maitasunean sakontzen du, bere forma guztietan; maitasun erromantikoa, familiagazko baldintzarik bako maitasuna, adiskideena, maitasun propioa edo musikagazkoa", gehitu du.

Gaur, maiatzak 30, Elorrioko Ateneon aurkeztuko du lana, 20:30ean. Bertan, besteak beste, *Just a kid* eta *[WTFIWWY]* abestiak joko ditu. "Jendeak ez du nigandik abesti hau espero, baina oso indartsua dela uste dut", esan du artistak bigarren honi buruz. Sarrerak momentuan bertan erosi ahal izango dira, 5 euroan.



GAÍ LIBREAN

GARAZI ARRIZABALAGA CABRERIZO DURANGOKO MUSEOKO ZUZENDARIA

Isilaraziak XXIII

Emakume izate hutsagatik, artista askok zailtasun handiagoak izan dituzte. Haien lana ezkutuan geratu da: ez da behar bezala baloratu, ez da museoen hormetan zintzilikatu. Eta ez balio artistiko gutxiago izateagatik, ez, emakume izateagatik baizik. Horren sinplea, eta horren ankerra.

Gainera, emakume jaio, baina emakume sentitzen ez den artista bat bazara, eta XIX. mendearen amaieran jaio bazara, pentsa zure bizitza zein gupidagabe bihur zitekeen.

Hori guztia lehen pertsonan bizi izan zuen Hannah Glucksteinek, Gluck izenez ezaguna, genero-neutraltasuna aldarrikatuz. Familia judu eta dirudun batean jaioa, ez zuen inoiz etxekoan babesik jaso. Txikitatik baztertu zituen ezarritako genero-rolak: gizonezkoen jantziak soilik erabiltzen zituen, eta gizarteak ezarritako arauak ez zituen onartzen. Diskriminazioa ez

zen familian bakarrik geratu: artearen munduan ere zailtasun handiak izan zituen.

Ez zuen inoiz "arte femeninoa" kontzeptua onartu, artistak generoaren gainetik ulertzen baitzituen. Pentsamolde hori XX. mendearen hasieran izatea benetan aurrerakoia zen. Horregatik, berak antolatzen zituen bere erakusketak, inoren jarraibiderik gabe. Egindako erakusketa guztiak bakarkakoak izan ziren. Ez zen inoiz eskola edo mugimendu artistiko zehatz batekin lotu, eta bere pigmentu propioak prestatzen zituen, merkatuan zeudenak baztertu.

Erretratuengatik eta lore-pinturengatik da ezaguna. Erretratuei dagokienez, "Medallion" izenekoa da esanguratsuena; gaur egun queer artearen ikur gisa hartzen da. Bertan, Gluck eta bere maitalea, Nesta Obermer, ageri dira, profilez, bata bestearen ondoan. Hondo lau baten aurrean, emakumeen begiradek eta

espresioek dute protagonismoa. Lesbiana edo transgeneroa izatea oraindik izendatu ezin zen garai batean, horrela adierazi zuten beraien maitasuna.

Hala ere, azkenean Nesta bere senarrarekin itzuli zen, eta Gluck bakarrik eta depresioan geratu zen.

Hura ez zen bere maitale bakarra izan: Constance Spry lore-diseinatzailearekin harreman estua izan zuen, eta honek sortzen zituen lanak margotzen zituen Gluckek. Geroago, Edith Shackleton Heald kazetariarekin hasi zuen harreman sentimental, eta heriotzera arte elkarrekin bizi izan ziren.

Joan den maiatzaren 17a homofobiaren eta transfobiaren aurkako eguna izan zen. Gaur egun oraindik aldarrikapenak egitea beharrezkoa bada, eta egiteko asko geratzen bazaigu, pentsa zer bizi behar izan zuen Gluck bezalako artista batek XX. mendearen hasieran. Aitortza hau beharrezkoa zen.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENA-GO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 30

ATXONDO Marixurrike Fest
Umeen pilota partiduak, 16:30ean.
Ondoren, Pilota Goxua Txapelketa.
Hodei Magoa, 18:30ean, gimnasioan.
Kalejira Track-A DJagaz, 19:30ean.
Afari herrikoia.
Apatako frontoian, 21:30ean.

BERRIZ Asentzio Jaiak
Donien Atxa jasotzea, 18:00etan.
Argazki erakusketa, 18:30ean.
Dantzari Dantza, 19:30ean.
Kontzertua: Belharra, 20:00etan.
Andikoa auzoan.

DURANGO Erakusketa
Fernando Beorlegiren lanak.
Arte eta Historia Museoa, ekainaren 1era bitartean.

DURANGO Berbaldia
'Artea eta gaztetxeak' berbaldia,
Kaletik Gaztetxera dinamikak
antolatuta. Gero, 2. batzar zabala.
Mural margoketa ere egingo dute
Herria auzo elkartearen parean.
Otamotzena auzogunean, 18:00etan.

DURANGO Berbaldia
Ettxeko langileei buruzko berbaldia.
Elkartegian, 18:00etan.

ELORRIO Kontzertua
Zoe Igartiburu.
Ateneoan, 20:30ean.

IURRETA Bentrilokuoa
'Nire maletatxoan' (Elvi).
Ibarretxe kultur etxean, 18:00etan.

IURRETA Kontzertua
Lionels.
Korta tabernan, 21:00etan.

MALLABIA Berbaldia
'Gure momentuak: semea galdu
duen aita baten ikuspegitik'.
Kontzejuzarreen, 20:00etan.

OTXANDIO Txistu kontzertua
Gasteizko Jesus Guridi
konterbatorioko ikasleak.
Arkotxe elkarte, 19:00etan.

ZORNOTZA Erakusketa
Say Cheese (Adrián Castañeda,
Hemen Proiektua eta Cristina Souto).
Zelaieta zentroan, ekainaren 6ra arte.

ZORNOTZA Antzerkia
'Rikardo III eta Ni' (Dxunturi Teatroa
eta Horman Poster).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZORNOTZA Ekitaldia
Zornotzan Kantuz.
Venecia tabernatik, 19:30ean.

ZAPATUA 31

ATXONDO Marixurrike Fest
Aldatsa goitibeherak.
*Pump-track pistaren ondoko
errepidean, 11:30ean.*

BERRIZ Asentzio Jaiak
Kronoigoera: Il. Juan Carlos Arriaga
Memoriala, trikitilariak girotuta,
17:00etan.
Bertso saioa: Iruri Altzerreka eta
Onintza Enbeita. Gidariak: Idoia
Barcelo eta Miren Amuriza,
19:30ean.
Andikoa auzoan.

DURANGO Bisita gidatua
Udaletxea ezagutzeko bisita. Izena
emateko: www.durango.eus atarian,
HAZn edo Turismo Bulegoan.
Udaletxean, 12:00etan.

DURANGO Erakusketa
Eskola arteko XVI. marrazketa, pintura
eta eskulanean lehiaketako lanak
(Durangaldeko Artisten Elkarte).
Ezkurdi aretoan, ekainaren 15era arte.

DURANGO Ekitaldia
Durango Kantari: Josepa Kale Kale
taldeak eta Andraguneko
emakumeek parte hartuko dute.
Ezkurdi plazan, 12:00etan.

ELORRIO Kontzertua
Noiz + AT.
Ateneoan, 22:00etan.

IURRETA Bizikleta irteera
Deskargara bizikleta irteera. lurreta
Txirrindulari Elkarte.
lurretan, 08:30ean.

IURRETA Udaberri Jaia
Igel txapelketa, 13.30ean.
Marmitako txapelketa, 14:30ean.
Briska txapelketa, 18:00etan.
DJ Leire Etxano, 20:00etan.
Bakixa auzoan.



IURRETA Antzerkia
Gilkitxaro antzerki konpainiak bere azken lana plazaratuko du lurretan, gaur.
Ane Zabalak, Galder Perezek eta Aitor Garcia de Vicuña bizi dugun garaia
buruzko hausnarketa egiten dute *Alperrak, tunanteak eta maleanteak* obran.
Maiazaren 30ean, barikua, Abadetxean, 20:30ean.

MALLABIA Ezpatadantzariak
Durangaldeko Ezpatadantzari Eguna.
Kalejira, 17:30ean.
Dantzarien ekitaldia 18:00etan.
Triki poteoa, 20:00etan.
Parkean.

ZORNOTZA Jaialdia
Zugan ni 2025. Nerabe eta gazteen
antzerki jaialdia.
Zornotza Aretoan, 19:00etan.

DOMEKA 1

ABADIÑO Kontzertua
Zalomon Grass.
Amaraun Arte Fabrikan, 13:30ean.

ABADIÑO Ekitaldia
Elkarrekin Josteko Eguna
(Durangaldeko Berbalagun).
Elkar ezagutzea eta ikasturtean
zehar egindako lanak ikusteko eta
jostunen txokoetan parte hartzeko
aukera, 11:00etan.
Baske Street Boys, 13:00etan.
Mokadutxoa, 14:00etan.
Izena emateko 639 400 786
telefono zenbakian.
Traña-Matienako kioskoan.

ATXONDO Kontzertua
Ekoizle eta artisauen azoka,
Quitapenas pintxadagaz, goizean.
Harry Bird eta bere taldea, 19:00etan
Amillenako Arrazolako bentan.

BERRIZ Asentzio Jaiak
Meza nagusia, 11:00etan.
Dantzari Dantza Iremiñe dantza
taldeagaz, 11.30ean.

Herri kirolak, 12:00etan.
Umeentzako jolasak eta
txokolatada, 17:00etan.
Bolo-joko txapelketa, 18:30ean.
Erriren sari banaketa, 19:30an.
Andikona auzoan.

DURANGO Bisita gidatua
'Durango zuri beltzean' bisita. Izena
eman behar da: Turismo Bulegoan,
94 603 39 38 telefono zenbakian
edo turismo@durango.eus helbide
elektronikoan.
Turismo Bulegoan, 10:30ean.

IURRETA Bizikleta irteera
Milloira bizikleta irteera. lurreta
Txirrindulari Elkarte.
lurretan, 08:00etan.

MALLABIA Azoka
Nekazaritza eta artisautza azoka,
10:00etan.
Gazte Alai dantza taldea, 13:00etan.
Frontoian.

EGUZTENA 4

BERRIZ Berbaldia
'Klimaterio edo menopausia?' (Hizlaria:
Leire Ascargorta Eriz emagina).
*Berrizko Kultur Etxeko atzeko
parte, 18:00etan.*

EGUENA 5

ABADIÑO Kontzertua
Weak.
Amaraun Arte Fabrikan, 19:30ean.

ZINEMA

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Blindado
Barikua 30: 18:00, 20:30.
Zapatua 31: 19:30, 21:30.
Domeka 1: 19:30.
Astelehena 2: 18:00, 20:15.
Martitzena 3: 18:00, 20:15.
Eguaztena 4: 19:00.

Almas marcadas
Barikua 30: 18:00, 20:30.
Zapatua 31: 19:30, 21:30.
Domeka 1: 19:30.
Astelehena 2: 18:00, 20:15.
Martitzena 3: 18:00, 20:15.
Eguaztena 4: 19:00.

Hamburgo
Barikua 30: 18:00, 20:30.
Zapatua 31: 18:30, 21:30.
Domeka 1: 17:00, 19:30.
Astelehena 2: 18:00, 20:15.
Martitzena 3: 18:00, 20:15.
Eguaztena 4: 19:00.

Lilo&Stitch
Zapatua 31: 17:00.
Domeka 1: 17:00.

Kharut II, lehenengo igoera baten istorioa (Vicente Barcena eta Koldo Zubimendi)
Eguena 5: 19:00.
Ondoren, hizketaldia

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Un buen padre
Domeka 1: 20:00.
Astelehena 2: 20:15.

La luz de Aisha
Domeka 1: 17:00.

BARIKUA 6

DURANGO Jolasak
Jokai: Euskal mitologian
inspiratutako jolasak.
San Fausto auzoan, 17:30ean.

DURANGO Musika
Sugari fanfarrearen kalejira.
Alde Zaharrean, 19:30ean.

IURRETA Antzerkia
'El salto de Léucade' (Skené Teatro).
Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.

MALLABIA Jaialdia
Mallabia futbol taldearen denboraldi
amaierako jaiak, 16:00etan, eskolan.
Biharko Izarrak txapelketako finalak.
Frontoian, 19:00etan.

OTXANDIO Mekoletako jaiak
Txupinazoa, 20:00etan.
Perlata + P.I.L.T. + Trikitixa Kontrairo.
Mekoleta auzoan, 21:30ean.

ZORNOTZA Antzerki amateurrak
'De desastre a Verona' eta 'Asesinato
en el restaurante Anboto'.
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

Durangaldea, eskubaloiko harrobiaren epizentro

ESKUBALOIA Euskal-Nafar Txapelketako kadete eta gazte mailako txapeldunak Durangaldeko lau herritan erabakiko dira: Durangon, Elorrioren, Abadiñon eta Zaldibarren. Partidu guztiak, sailkapen fasetik finalera artekoak, zapatuan izango dira

J.D. / M.Z. DURANGALDEA

Euskal Herriak eskubaloian duen harrobia bertatik bertara ezagutu gura duenak Durangaldean du horretarako aukera. Zapatu honetan, Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako selekzioen artean Euskal-Nafar txapelketak jokatu dituzte Durangon, Elorrioren, Abadiñon eta Zaldibarren. Talde guztiak kadete eta gazte mailakoak izango dira, eta, guztira, 400 bat kirolari batzea itxaroten da.

Durangoko Tabira kiroldegia nesken kadete mailako finalak hartuko ditu, Elorrioko kiroldegia nesken gazte mailakoa,



Bizkaiko selekziozko gazteak.

Traña-Matienako kiroldegia mutilen kadete mailakoa, eta Zaldibarko kiroldegia mutilen gazte mailakoa. Sari banaketa Durangoko Ezkurdi Jai Alain egingo dute, egunean bertan, 20:00etan.

Eskubaloia ezagutara

Txapelketa hau probintzia batek antolatzen du urte bakoitzean, eta aurtengo Bizkaia egokitzen zaio. Durangoko Ibaizabal eskubaloitzaileak abagune hori aprobetxatu du kirol hau eskualdean ezagutarazteko. "Bagenekien aurtengo Bizkaia egokitzen zitzaiola, eta geure burua aurkeztu genuen Durangon antolatzeke. Durangaldean eskubaloia erdigunean ipiniko dugu aste-buru horretan, eta txapelketagaz bultzada bat eman gura diogu eskubaloia eskualdean", azaldu du Juanjo Gude Ibaizabal eskubaloitzaile taldeko presidentea.

400 kirolaritik gora batuko direnez, txapelketa Durangoko kiroldegietan bakarrik antolatzea "ia ezinezkoa" zen, eta, horregaitik, eskualdeko beste herri batzuetara zabaldu dutela adierazi du Gudek.

ORDUTEGIA

NESKA KADETEAK

- **Tokia:** Durangoko Tabira kiroldegia
- **Sailkapena:** 10:00-11:45
- **3. eta 4. postuak:** 16:00
- **Finala:** 18:00

MUTIL KADETEAK

- **Tokia:** Traña-Matienako kiroldegia
- **Sailkapena:** 10:00-11:45
- **3. eta 4. postuak:** 16:00
- **Finala:** 18:00

NESKA GAZTEAK

- **Tokia:** Elorrioko kiroldegia
- **Sailkapena:** 10:00-11:45
- **3. eta 4. postuak:** 16:00
- **Finala:** 18:00

MUTIL GAZTEAK

- **Tokia:** Zaldibarko kiroldegia
- **Sailkapena:** 10:00-11:45
- **3. eta 4. postuak:** 16:00
- **Finala:** 18:00

Betsaide Elorriok Euskal Ligako finala jokatu du zapatuan

ERRUGBIA Liga erregularreko liderrak denboraldi bikaina borobildu dezake Gasteizen jokatu duen finalean



Betsaide Elorrio taldeko jokalariek, zelaian batuta. ELORRIO RUGBY TALDEA

J.D. ELORRIO

Betsaide Elorrio gizonen taldeak Euskal Ligako txapelketako finala jokatu du bihar, 17:30ean, Gasteizen, Universitario Bilbao taldearen aurka. Talderik onena izan da liga erregularrean, eta denboraldi bikaina borobildu dezake. Ez zaio animorik faltako, klubak autobusa anto-

latu duelako taldeari hauspoa emateko.

DRTk ezin

Bestalde, Durango Rugby Taldeko neskek ezin izan dira finalera heldu. Joaneko partidua 14 puntugaitik irabazi zuten Arripausetan, baina itzulikoan, Gasteizen, 27 puntugaitik galdu zuten.

Durangotik Urkiolara, 1.000 zikloturista inguru

TXIRRINDULARITZA Iraupen Luzeko BIBE Transbizkaia proba zikloturistak zortzigarren aldia beteko du datorren domekan. Iraupen Erdiko proba ere egingo dute. Ibilbidea urteroko bera da: Durangon irten eta Urkiolako Santutegi ondoan helmugaratuko dira

J.D. DURANGO

Datorren domekan milaka pedal-kolpe biziko dira BIBE Transbizkaia zortzigarren edizioan. Urtero legez, Durangoko Landako Gunea izango da irteteko puntua, 08:00etan, eta Urkiolako Santutegi helmuga ikusgarria. Guztira, ia 1.000 parte-hartzaile izango dira, antolatzaileek jakinarazi dutenez.

Probak ibilbide bi eskaintzen ditu: iraupen luzekoa eta ertainekoa. Lehenengoak 179 kilometro eta 3.500 metroko desnibel positiboa ditu, eta txirrindulariek zortzi mendate igoko dituzte. Iraupen Erdikoak

122 kilometroko luzera du, eta 2.445 metroko desnibela du. Probak sei mendate ditu.

BIBE Transbizkaia lehenengo edizioa 2016an egin zen

eta orduan 500 bat lagunek parte hartu zuten proba luzean. Bigarren ediziotik aurrera, antolatzaileek iraupen ertaineko aukera gehitu zuten.



lazio aldiko parte hartzaileak. BIBE

Euskadiko MTB txapelak Abadiñon erabakiko dira

TXIRRINDULARITZA Mailarik maila mendi bizikletako euskal espezialistarik onenak Abadiñon batuko dira, zapatu honetan, Euskadiko txapelketak irabazteko asmoz. Café Dromedario-Flotamet taldeko ziklistak faboritoen artean egongo dira

J.D. ABADIÑO

Abadiñok sarritan hartu ditu mendi bizikleta probak azken urteetan. Oraingoan, zapatu honetan, Euskadiko MTB txapelketa lehiatuko da Zelaietan, mendi bizikletaren zaletasuna bultzatzeko helburuagaz.

Maila guztietako txapelak egongo dira jokoan, kadeteetatik hasi eta master mailara artekoak. Txirrindulariek 4,2 kilometroko ibilbideari aurre egingo diote lasterketa guztietan. Irteera eta helmuga puntua San Vicente fundizioaren inguruan egongo da, eta Mendiola inguruetatik igaroko da zirkuitua.

Lasterketak hiru txandatan banatuko dituzte. Lehenengoan master mailako txanda izango da. 09:30ean, master 30, 40, 50 eta 60 kategoriakoak hasiko dira. Bigarren txanda 11:00etan hasiko da: elite eta 23 urtez azpiko emakumeak irtengo dira lehenengo; jarraian, junior emakumeak; eta, minutu gutxira,



Café Dromedario-Flotameteko MTB taldea, aurkezpen egunean.

mutil kadeteen eta nesken lasterketa hasiko da. Azken txandan, 12:45ean, elite eta sub 23 gizonen eta junior mutilen lasterketak lehiatuko dira.

Etxeko taldea, Café Dromedario Flotamet, podiumerako bo-

rrokan ibiliko da hainbat ziklistagaz: kadete kategorian, Andoni Villate eta Markel Iglesias zornotzarrekin; eta, juniorretan, Ander Mendizabal abadiñarragaz eta Jon Lopez bediarragaz.



Elorrioko jokalariek Hirugarren RFEFerako igoera ospatzen.

Igoeraren ondoren, Elorrio futbol taldea Euskal Koparen bila

FUTBOLA Elorriok Pauldarrak taldea izango du kontrario gaur Durangoko Tabiran jokatuko den finalerdian

J.D. DURANGO

Durango Euskal Kopako egoitza izango da datozen asteetan. Lehenengo hitzordua asteburu honetan bertan da, emakumeen senior mailako lauko finalagaz, eta eskualdeak ordezkari bat izango du: Elorrio futbol taldea.

Elorriok Barakaldoko Pauldarrak taldearen kontra jokatuko du lehenengo finalerdia, gaur, 17:00etan, Tabira futbol zelaian. Beste finalerdia Zarautz eta Real Sociedad C taldeen artekoa da. Finala domekan jokatuko da, 12:00etan. Irabazleak Alaves taldea ordezkatzeko

du Euskal Kopako txapeldun legez.

Elorriok badaki txapelketa hau irabaztea zer den. 2023an Euskal Kopa irabazi zuen, finalen Eibar menderatuta. Gontzal Aranek entrenatutako taldeak denboraldi gogoangarria darma, bere ibilbidean lehenengoz Hirugarren RFEF Mailara igo-tzea lortu duelako.

Hurrengo asteburu bietan beste final bi lehiatuko dira Durangon: mutilen gazte mailakoa ekainaren 6an eta 8an, eta mutilen kadete mailakoa ekainaren 13an eta 15ean.



JOKALDIA

UNAI ZAMALLOA ZUBIAURRE SASKIBALOIA

Zaharrak berri

Zaharrak berri izan dira ligako azken txanpetan. Urtean zehar ikusi duguna berretsia da eta ez da egon azken uneko aldaketa esanguratsurik. Amaitu da aurtengo denboraldia, eta, aurrekoan esan bezala, emaitzen aldetik ez da guztiz ona izan eskualdeko gure taldeentzat. Maila galerak egon dira (Zornotza S.T. mutilak eta Tabirako Baqué mutilak) eta txapelik ez dugu eskuratu, nahiz eta txapeldunordeak baditugun gure artean.

Dena dela, aurten ospatzekoa da gure kirolak bizi izan duen hazkundea inguruotan. Umeen eta gazteen saskibaloia taldeak asko dira, nesketan gehienak, baina mutilen saskibaloia ere hazten ari da apurka. Hurrengo denboraldirako ditugun zenbakiak hazkundea jarraripen bat izango dutela erakusten digute. Berri pozgarria da saskibaloia maite dugunontzat eta kirol honen sustapenean dihardutenentzat.

Baina txanponaren beste aldea aipatu beharra dago. Taldeak gidatzeko eta gure kirolaren oinarria sendotzeko, entrenatzaileen eta saskibaloia begiraleen falta nabarmena dago. Arlo horretan hutsune bat nabari da eta horrek zailago bihurtzen ditu gauzak. Zenbakiak gordinak eta gorriak dira, eta horrek, denon artean, epe labur eta ertainera begira bete beharreko lanak argi uzten dizkigu. Arlo honetan ere lan egin beharra dago jokalaria gazteen gorakadan izan den igoerari ahalik eta erantzunik onena emateko.

"OSPATZEKOA DA GURE KIROLAK BIZI IZAN DUEN HAZKUNDEA INGURUOTAN. UME ETA GAZTEEN TALDEAK ASKO DIRA"

"TXANPONAREN BESTE ALDEA AIPATU BEHARRA DAGO. ENTRENATZAILE ETA BEGIRALEEN FALTA NABARMENA DAGO"

Jokalarien zenbakiak gorantza doaz, beraz. Entrenatu eta gidatzeko dituztenenak, ordea, ez doaz norabide berean. Egoera hau irauli egin beharko dugu hurrengo urteei begira. Entrenatzaile berriak erakarri behar ditugu, eta lanean ari direnak indartzeko eta garatzeko ekintzak antolatu eta bideratu behar dira. Erremintarik aproposenak eman behar dizkiegu euren lana ahalik eta ondoen burutu dezaten. Hori barik, gero eta zailagoa izango da gure helburua lortzea. Beraz, jarrai dezagun lanean!



Ferialekuan baturiko 500 bazkaltiarrek paella jan zuten.



'Gerbas'-ek magiaz beteriko hegaldia egin zuten. LUCIA MERUELO



Sukaldari kantabriarrek egundoko lana egin zuten zapatu goizean.



Igor Elortza, Oihana Bartra eta Bittor Altube bertsolariek bazkalaurrea girotu zuten.

Jaiak agurtuta, hurrengo urtera artekoen zain geratu dira abadiñarrak

Giro paregabea lagun, santrokazak amaierara ailegatu ziren joan zen domekan. Aurtengoak jai arrakastatsuak izan diren arren, etorkizunekoak "kolokan" egon daitezkeela ohartarazi du jai batzordeak. Herritarren inplikazioa eskatu dute

E.H. / M.Z. ABADIÑO

Joan zen domekan aineratu zuten 'Gerbas', eta, horrela, abadiñarrek amaiera eman zieten herriko jai nagusiei. Panpina hegalaria askatu aurretik, baina, jai batzordeko kide batzuek berba hartu zuten santrokazen osasun egoeraz berba egiteko. Iragarri zutenez, jai batzordea "kolokan" dago. Hori dela eta, herritarren inplikazioa

eskatu zuten etorkizuneko jaiak antolatu ahal izateko: "Ez genuke gura jai batzordearen amaieraren iragarpena izatea, esnatzeko dei bat baino, gure jaiak mantentzeko abisu bat, SOS bat, iratzartze oihu bat", esan zuten. "Urteak joan dira eta badirudi gure energia, gure ilusioa eta gure lana ez dizkiegula behar den moduan transmititu ondorengo belaun-

diei", gaineratu zuten. Era berean, jai batzordeko kideen batez besteko adina 40 urtekoa dela zehaztu zuten: "Ez da jasangarria". Abadiñok lekukoa hartu gura duen belaunaldia behar duela aldarrikatu zuten: "Hasi gaitzen berriro sinesten gure herrian, gure jendearengan, gure gaitasunean. Etorri zaitez gugana. Ez dezagun herria hil".



Auzolana izan zen herri bazkariko oinarri.



Orkrestak girorik alprojena zabaldu zuen Zelaietako kaleetan.



Zapatuan, Duplak dantzan ipini zituen Txanportan baturikoak.



Trikiti doinu elektronikoez gainera, Sünek kantu lasaiak ere abestu zituen.



Txistua jotzeaz gainera, adi-adi jarraitu zioten 'Gerbas'-en arrastoari. L.M.



Txokolatada, Txanportan. LUCIA MERUELO



Dantzariak ere agurtu zuten 'Gerbas'.

INMOBILIARIAK




F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ERAIKUNTZA BERRIA
IURRETA 2 eta 3 logela. Garajea eta trastelekua. **282.000 €**-tik aurrera.
AZOKA BERRI 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. **387.000 €**-tik aurrera.
ARANDONOTORRE Duplexa. Atikoa. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=B.**
AUKERA
San Fausto-Nafarroa: Lehenengo solairua. 2 logela, komun eta sukalde-egongela. Terraza. **C.E.E=G 155.000 €**
ETXEBIZITZAK SALGAI
Abadiño: Zeletabe. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Igogailua. Garajea eta trastelekua. Etxe osoak kanpora ematen du. **C.E.E=E 265.000 €.**
San Fausto: Kirikiño. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. BERRIZTATUA. Jantzia. **C.E.E=G 180.000 €.**
Mikeldi: 84 m2. 3 logela, komuna, sukaldea terrazarekin eta egongela balkoiarekin. **C.E.E=F 193.000 €.**
Artekalea: 94 m2. 5 logela, komuna eta egongela. Trastelekua. **C.E.E=F 195.000 €.**
J.M.Altuna: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. garajea aukeran. **C.E.E=E 318.000 € .**
San Inazio: 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. 2 terraza. Eguzkitsua. Garajea. Piztina. **C.E.E=E 265.000 €.**
Baserria, Zornotza: Berriztatua. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila. **470.000 €.** **C.E:E=F**
Izurtza: Baserria. BERRIZTATZEKO: Lursailarekin. **C.E.E=G 198.000 €.**
Abadiño: Gaztelua. Salgai 866 m2-ko lursail laua. **35.000 €.**
LOKALAK SALGAI
Ermodo: 148 m2ko lokala. Alokairuan / salgai. Komentukalea: 100 m2-ko lokala. Egokituta. **160.000 €.**
Durango: 100 m2-ko lokala alde zaharrean. Egokituta. Taberna. **125.000 €.**
Durango: Bulegoa. Erdialdean. Lehenengo solairua. **650 €.**
Iurreta: Bixente Kapamaga. 117 m2-ko lokala. **75.000 €**
Astepe: 40 m2-ko lokala. Egokituta. **70.000 €.**
Maspe: 150 m2-ko lokala. **112.000 €.**
Askatasun Etorbidea. 60 m2-ko lokala. Egokituta. Kearentzako irteera. **125.000 € .**
Alluitz: 70 m2-ko lokala. Egokituta. Erakuslehiorekin. **145.000 €.**
GARAJEAK SALGAI
Plateruen plaza: Garajea trastelekuarekin. **23.000 €.**



Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO
Artekalea: Guztiz berriztatua. 2 logela, komuna eta sukaldea. 3. solairua. Igogailurik gabe.
San Inazio auzunea: 3 logela, sukaldea eskegitokiarekin, egongela balkoiarekin eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
Arkotxa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea eta 2 komun. Ganbara. Garajea.
Barrenkalea: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.
Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.
Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.
BERRIZ
Berriz: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta tra stelekua.
AIXONDO
3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.
LURSAILAK SALGAI
Iurreta: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.
BASERRIAK ETA TXALEAK SALGAI
Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatze. Lursailarekin. Ganbara.
Berriz: Andikona auzoa. Baserrri ikusgarria, berriztatze. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.
Markina: Iturreta auzoan. Baserrria salgai. Teilatua konponduta. 12.000 m2-ko lur sailarekin.
Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.
BULEGOAK ALOKAIKUAN ABADINO
30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.
DURANGO
Ermodo kalean. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.
LOKALAK ALOKAIKUAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.
LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.
Elorrio: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.
LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI IURRETA
Arriandi industrigunean. 111 m2. Bulegoa eta komuna.
Arriandi industrigunean. 400 m2. Biltegirako aproposa.



Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



C.E.E: F. 163.000 €

DURANGO San Fausto: 53 m2 (2.017. urtean berriztatua) Egongela-sukaldea, 2 logela eta komuna duxarekin. Ezin hobea. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Pisu altua eta argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak. ITE-a pasatutakoa.



C.E.E: E. 164.000 €

DURANGO Lariz dorrea: 104,54 m2. útiles, Egongela, sukaldea, jangela, 4 logela, komuna eta despentsa.Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea)Leku onean kokatua (Santa Ana) Berrikuntzak behar ditu. 2 APARTAMENTU ERAIKITZEKO AUKERAREKIN.



C.E.E: F. 195.000 €

DURANGO Artekale: 90 m2. Egongela, sukalde jantzia, 5 logela eta komuna. Egoera onean. Etxebizitza altua. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialdea) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. ITE-a pasatutakoa, ez ditu berrikuntzak behar.



C.E.E: E. 134.000 €

IURRETA Bixente Kapanaga: 81 m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du. (ipar, hego-ekialdea) Etxebizitza altua eta argitsua. Leku onean kokatua. Jantzia.



C.E.E:BIDEAN. 159.000 €

IURRETA Uralde: 66 m2. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Balkoia. Egoera onean. Argitsua. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua. Jantzia. ITE-a pasatutakoa. Ez ditu hobekuntzak behar.



Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

BERRIAK DURANGO
Juan Antonio Abasolo: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Konpontzeko. **170.000 €/ E.E.Z=F**
DURANGO
Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**
Frantzisko Ibarra: 4 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. igogailua. **335.000 €/ E.E.Z=E**
Juan de Olazaran: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**
Zeharkale kalea: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.**139.000 € / E.E.Z=E**
ABADINO
Dendarikoa: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**
Eskolakoa: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **325.000 € / E.E.Z=G**
Txanporta plaza: Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**
AIXONDO
Artekalea, 13: Konpontzeko baserrria lursailarekin. **300.000 €.**
BERRIZ
Murgoitio auzoa: Berreraikitze. baserrria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**
Eitua: Berreraikitze. baserrria lursailarekin. **350.000 €**
GARA
Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitze. lursailak. Aukera ezberdinak.
IURRETA
Bixente Kapanaga: Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 95.000 € ORAIN 80.000 € / E.E.Z=F**
IZURITZA
Elizalde auzoa: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 570.000 € ORAIN 530.000 € / E.E.Z=E**
GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGON SALGAI
Alluitz: Garaje itxia. **24.000 €.**
Kurutziaga: garajea. **18.000 €.**
Madalenoste: Garaje itxia eta trastelekua. **42.000 €.**
DURANGON ALOKAGAI
Antso Eztegiz: Partzela. **45 € /hilean.**
Muruetatorre: Garajea. **75 € / hilean.** Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.
LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI/ALOKATZEKO DURANGON ALOKAGAI
Aliendalde auzunea: 250 m2-ko pabilioia. **1500 € /hilean.**



LAU-HORTZA

KAROL SUAREZ

A3933

Ehunka gara, egunero, autobusetan estutzen garenak; lanak, ikasketek eta zaintzak eramaten gaitu bide beretik.

Egintza beraren errepikapenak eserleku bakoitza gure egin du; izterren forma hartu dute. Halaxe goaz eroso, norbera bere etxe txikian jarrita, erruberadun edukiontzi handian; une horretan, konturatu gabe, ingurukoak ez baleude bezala jokatzeko dugu.

Orduantxe hasten da benetako ikuskizuna. Norbaitek ilea orrazten du, etxeko ispiluaren aurrean egingo balu bezala; beste bat makillatu egiten da autobusaren bide-zuloen arteko malabarismoan. Albalean gor-detako gosariaren krakina. Lanera iritsi baino lehen lanean hasten direnak, bakarrik ozenak, aurikular barik musika topera entzun edota dantza ere egiten dutenak...

Autobusak erakusten digu elkarbizitza zer den... edo zer ez den. Eta nola, gu geu, eserleku erosoetatik, bidegabetasunez betetako paisaia bat margotzen ari garen: batzuek argi dute non ez eseri —arrazializatu baten ondoan, adibidez—. “Despistatu” larregi adinekoek lekua ukatuz, gidariari oihuka haserretzen zaionik, gorpildun aulkiez kexu direnak, haur-aulkiez.... Gizasamerik masturbatzen harrapatu dugu inoiz!

Autobusa da gure ispilu apurtua: zertan bihurtu garen erakusten du. Eta, tamalez, gehienetan ez da ederra irudia.

AKUILUA

Ekaitz Herrera DURANGO

Elkartean baturiko 30 kidek lau pintxo puntuatu zituzten: sukaldari bien pintxo hotza eta pintxo beroa. Lehiaketa Zigor Gerediagak irabazi zuen, baina estu-estu geratu zen atzetik Ortzi Egia. Edozelan ere, batak edo besteak irabazi, sukaldari biek lehiaketako lagun-giro aparta gorai-patu dute. ANBOTOk sukaldari biak elkarriketatutako zituen jokoa amaitu berrikan.

Zuek estreinatu duzue Napar txokoko pintxo lehiaketa. Zelako esperientzia izan da?

Zigor Gerediaga: Ondo joan da. Bakoitzak bere erritmoan kordinatu du, eta oso ondo moldatu gara. Gustura ibili gara.

Ortzi Egia: Gainera, lehiaketako azken minutuak elkarlanean egin ditugu, talde lanean. Dena dela, lehiaketaz gainera, lagun artean sorturiko giroa da balio duena. Jendeak ondo pasatu du, eta baita guk ere, nahiz eta presioak eraginda sufrimendu puntu hori bizi izan dugun. Baina tentsio hori beharrezkoa da gauzak ondo egin ahal izateko. **Izan duzue aukerarik batak bestearen pintxoak dastatzeko?**

Z. G.: Jakina! Ortziarenak gozo-gozoak izan dira!

O.E.: Niri ere asko gustatu zaizkit Zigorrenak. Lehenengo oso fina iruditu zait. Bigarrenaren zapoak ezagunagoak egin zaizkit, baina gauza bakoitza bere puntuan egon da, okela bere puntuan, kanela bere puntuan...

Zer aurkeztu duzue lehiaketara?

Z.G.: Sukaldari bakoitzak pintxo hotz eta pintxo bero bana prestatu dugu. Nire pintxo hotza txangurroagaz barrubeteriko panipuria izan da. Eta beroa tatin moduko bat, masail, kane-

"Lagun arteko giroa sortzea izan da politena"

ZIGOR GEREDIAGA ETA ORTZI EGIA NAPAR TXOKOKO BAZKIDEAK

Joan zen egunean, lehia gastronomiko bitxia jokatu zen Durangoko Napar txokoon. Zigor Gerediaga eta Ortzi Egia bazkideak elkarren kontra lehiatu ziren pintxotan



Zigor Gerediaga eta Ortzi Egia, pintxo-duelua amaitu berrikan.

la, txanpiñoi eta porru deshidratatuagaz.

O.E.: Nire pintxo hotzak antxoa izan du oinarri, sagardotan eta sagar-ozpinetan marinatutako antxoa. Tostadaxo baten gainean aurkeztu dut, olioazpin pikante-txo batez lagunduta. Pintxo beroan ere arraina izan dut oi-

"POLITA LITZATEKE HALAKO LEHIAKETA BAT ANTOLATZEA DURANGOKO TXOKOEN ARTEAN"

narri, koipe ikutu bat lagun. Hirugiharretan baturiko zapoa izan da pintxo, plantxan egina, eta zizadun menestra batez lagundu dut.

Buruko min handia izan da lehiara zer pintxo aurkeztu erabakitzea?

Z.G.: Egia esan, egunak eman ditut zer prestatu pentsatzen eta etxean probak egiten.

O.E.: Ni ere halantxik ibili naiz. Gaxena pintxo erabakitzea izan da. Etxeko errezeta liburuak irakurtzen ibili naiz, Arzakak eta Subijanaerenak tartean. Ai ama! Ez dago denarik euren pintxoetako osa-

gaien zerrenda osoa eskuragarri duenik!

Napar txokoon egin duzuen estrapolagarria da beste txokoetara?

Z.G.: Polita litzateke halako lehiaketa bat antolatzea Durangoko txokoen artean. Zergaitik ez?

O.E.: Bat nator. Oso polita litzateke horrelako zozter egitea.



Ikusi bideoa



Argia, espazioa eta ikuspegi paregabeak dituzten atikoak.

Azken fasea, lanetan.

Azken atikoak SAN ROKE BARRIAN, Durangon.

2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Ikuspegi irekiak eta terraza zabalak.

Etxebizitza pertsonalizagarriak. Sortu etxe bat zure beharren arabera.

Gune komun pribatuak: gimnasioa, ludoteka eta coworking gunea.

Informazio gehiago: **sukia.com** 946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa